SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko irailak 26, ostirala • 2. aldia • 478. zenbakia

Guaixe.net

PRES TOKIKOM

Juanjo Amezgarai omenduko dute Olatzagutian



Kultura >> 15

San Migel egunagatik jendetza espero da Aralarko santutegian. Ekain, Uharte Arakilen eta Olatzagutian festak dituzte

Sakanerria >> 6

Gurpil gainean!

Igandean, XXI. Sakanako Bizikleta Egunak Irurtzun eta Lizarraga batuko ditu.

>>11

Arakildarrek Etxarrengo frontoian aritzeko aukera

Udalak eta kontzejuak erabilera hitzarmena sinatuko dute

>>7

Urbasan fusilatutako seiren identitate bila

AFFNAk deialdia egin du

>>8

Hasi dira 28 gazteak epaitzen

Haien artean bi sakandar daude

>>9

Arkeologia sasoi akabera

>>5

Sakatxartel Asteburua bueltan da, atzera ere

Beleixeguaixe txartela dutenek erosketak egitean erakutsi eta bi sariren zozketan sartuko dira

>>5

Sakantzen Sarea historiatik tiraka

Biharko eta etzirako jardunaldi irekiak antolatu ditu, ibarreko ondarea ezagutarazi asmoz

>>7

Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa bihar

304 korrikalarik parte hartuko dute biharko proban. 23,2 km-ko ibilbidea osatu beharko dute

>>13

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA
Leiho-Isolatzaileak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak
GURE RENOVE PLANA
%20ra arteko deskontua
Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com

Ainhitze eta Tito
ZORIONAK BIKOTE!!!!! Oso ongi pasa eta muxu pottolo bat amatxoren partez!

Hodei
ZORIONAK zure 11. urtebetetzean!! Ongi pasa lagunekin eta familiarekin.

Leire
ZORRIONAK etxeko guztion partez. Ta pa haundi bet Josephen partes.

Maddi
ZORIONAK sorgintxo!! Muxu asko etxekoen partez.

Alvaro Etxarri Perez
ZORIONAK familiaren partez, bereziki Uxueren eta Loreaen partetik.

Ihart
ZORIONAK txiki! Izan ere handitzen ari zara, baina beti izango zara gure txikiena! Mila kilo zorion zure 6. urtebetetzean eta txokolatezko besarkadarik handiena!
Bihotzez, aita, ama eta Siets.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 3,50€

Bikoitza: 7€

irailak-lastailak 26-2

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Enkore eta Laia. Irailaren 26an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

Antzerkia

Burutik jota. Irailaren 27an, larunbatean, 17:30ean Olatzagutiko Sarasate plazan. Trokolo teatro.

Mendi irteerak

Altsasu-Arantzazu. Irailaren 28an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak taldea.**

Bizikleta irteerak

Sakanako Txirrindula Eguna. Irailaren 28an, igandean, 9:00etan Irurtzundik Lizarragara. 36 km. **Mank-eko Kirol Zerbitzua.**

Erakusketak

Los ochomiles son más que hielo y piedra. Ser mujer en Baltistan. Lastailaren 1era arte, Olatzagutiko kultur etxean. **Baltistan fundazioa.**

Emakumea eta euskal pilota. Lastailaren 3ra arte, egunero 17:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean.

Zure herriko historia jakin nahi? Lastailaren 5era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta asteburutan 12:30etik 14:30era eta 18:30etik 21:30era Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Altsasu Memoria.**

Dekoratzaile arteak. Lastailaren 10era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren tailerra.**

Gure sustraiak ardazten. Lastailaren 26ra arte, Altsasuko Basoko Mari dendan. **Paz Treuquil maputxearen margoak.**

Hitzaldiak

Enneco egitasmoaren aurkezpena. Irailaren 26an, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo Udaletxean.

Baltistan (dokumentala eta hitzaldia). Lastailaren 1ean, asteazkenean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlaria: Baltistan fundazioko kide olaztiar bat.**

Tailerrak

Duela 2000 urteko Sakanako bizitza moldea eta gizartea. Irailaren 27an, larunbatean, 10:00etatik 13:00etara Uharte Arakilgo Zamartzeko aztarnategian. **Sak-in Kontsulting eta Oihan Mendo.**

Enkore musika taldeak, gaur, 23:00etan du emanaldia Maisuenea gaztetxean.

Burundako mandazainak XVIII. mendean. Irailaren 28, igandean, 10:00etatik 13:00etara Etxarri Aranazko Kultur Etxean topaketa eta Artasoroko galtzadara bisita. **Sak-in Kontsulting eta Nicolas Arbizu Gabirondo.**

Bestelakoak

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologia-aztarnategira. Irailaren 27an, larunbatean, 11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

Altsasuko odol-emaileen festa. Irailaren 27an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Irailaren 26an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 26an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Memoriaz, askatasun helburu. Irailaren 27an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Foru plaza. **Manifestazioa.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 28an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.
107.3 FM beleixe online
www.guaixe.net
Piztu irratia!
ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
3MB plataforma,
La Encina kultur jardunaldiko bertsoak...
Esataria: Maider

SAKAN TZEN SAREA

V. eta VI. TOPAKETA IREKIAK: Gure ondare historikoa berreskuratzen



Egunak: Irailak 27 eta 28
Ordua: Goizeko 10etatik 13etara
Lekuak: Zamartzeko aztarnategia eta Etxarri Aranatzeko Kultur etxea

LEHENENGO EGUNA

Izenburua: "Duela 2000 urteko Sakanako bizitza moldea eta gizartea" Zamartzeko aztarnategian.

Deskribapena: Duela bi mila urte Sakanako bizitza moldeek eraldaketa sakonak pairatu zituzten kultura erromatarraren etorreraren ondorioz. Honen eraginez leinu egitura zuten nekazaritza-komunitateak aldatzen joan ziren hiri-mundura eta merkataritza harremanetara zuzenduriko gizartea sortuz. Usadio berriek aztarna sakona utziko zuten, oraindik orain gure garaietan ikusgarriak direnak.

Dinamizatzaileak: Sak-in Kontsulting eta Oihan Mendo.

BIGARREN EGUNA

Etxarri Aranatzeko Kultur Etxean topaketa eta Artasoroko galtzadara bisita.

Izenburua: "Burundako mandazainak XVIII. mendean".

Deskribapena: Mandazain lanbidea gure eskualdean ohikoa bezain ezezaguna zen. Burundako hainbat herrietan populazioaren herena lanbide honetatik bizitzen zen. Itsasalde eta barnealdearen arteko merkataritza eta garraioaz arduratzen ziren. Olioa, ardoa edota txokolatea ziren gai nagusienak. Iturmendin zein Urdiainen ikus ditzakegun etxetzar ugarik garai eta lanbide horretan dute jatorria.

SAKAN TZEN SAREA
Nafarroako Gobernua
LEADER
cederna garalur
SAKANA Garapen Agentzia
Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

astekoa



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

Burujabetza

Azken aste hauetan gehienok izan dugu ahoan hitz potolo hau, edo entzun ditugu gutxienez behin eta berriro gaiari buruzko eztabaidak. Eskozian bozkatzeko aukera izan dute, badirudi katalandarrek zailago dutela, Espainiako gobernuak ez baitu gustuko herritarren iritzia ezagutzea, badaezpada ere. Edozein kasutan burujabetzari buruz aritu bagara, burujabetza politikoa izan dugu gai.

Baina jakin badakigu benetan mundua mugitzen dutenak ez direla indar politikoak, indar ekonomikoak baizik. Horregatik burujabetzari buruz ari garenean pentsatu beharko genuke nola antolatu nahi dugun gure ekonomia, zeinen eskuetan utzi edo ez utzi. Burujabetza energetikoaz ari naiz, adibidez. Edo elikadura burujabetzaz.

Gure bizietan hain ezinbestekoa dugun energia lau enpresaren esku dago eta energia berriztagarriek etsai ikusten dituztelako, neurri desberdinetan denon esku daudelako, mugitu dira, eta nola, botere politikoa energia hauen kontrako legeak onartzera bultzatuz. Hori bai, frackingaren kontra ez dira azaldu, ez dago denon esku. Beraien negozioa litzateke.

Edo elikadura burujabetza. Zer jaten dugu? Nola ekoizten da jaten duguna? Hori da nahi duguna? Euskal Herriko gazta ekoizle txikiek, adibidez, zailtasun handiak dituzte Europa mailan onartutako arauak betetzeko, enpresa handien baldintzetara egokituak baitaude. Eta arauak betetzen ez badituzte merkatutik kanpo geratzen dira. Baina gure, kontsumitzaileon, erabakiak indar handia dauka, azken hitza gurea baita erosterakoan.

Momentuz ez digute utziko burujabetza politikoari buruzko erabakirik hartzen, baina badaukagu beste burujabetza hauetan aurrera pausuak egiteko modurik, eta ez da gutxi.

hara zer dien

Josefina Arregui Klinika lagunen elkartea

Atsegina eta eskertzekoa da Josefina Arregui klinikaren lagunen elkarteko kide batzuek kuota igotzea eskatu izana. Horrek, pazienteengan duen eraginaz gainera –azken batean, hori dugu xede– ederki aski erakusten digu eskuzabaltasuna, konpromisoa eta elkartasuna ez direla ahitu gure jendartean. Orobat, erakusten digu proiektua erakargarria eta interesgarria dela, merezi duela bertan lanean aritzea, Klinikak jarrai dezan erreferentzia puntu izaten bere espezialitatean, nahiz eta baldintzak ez diren hoberenak. Langile guztiok eskerrik beroenak ematen dizkiegu lagun eskuzabal, konprometitu eta solidario horiei.

Kalitatea hobetuz gero, baliabide gehiago behar ditu Klinikak. Zenbait bide ditugu horretarako. Noski, kuotak handitzea da bat, baina nahiago dugu proiektuan parte hartzen duten lagunen kopurua handitzea. 1.500 kide izan nahi genituzke. Funtsezkoa da administrazioa eta erakundeak ohartzea jendartea eskuzabaltasunez ari dela. Horretan ikusten dute ahalegindu behar dutela eta Klinikak eskatzen duen arreta guztia jarri behar diotela.

Horregatik animatzen zaitugu Josefina Arregui klinikaren lagunen elkartekide egitera eta, baldin bazara, inguruko guztiak kutsatzera kide egin daitezen, gure zaharrei ahal den zaintzarik hoberena eman diezaiegun. Ongi merezi dute, jakina.

Kide egiteko horra bide batzuk:

• Bidali zure datuak, posta bidez, Uriz kaleko 38ra. 31830 Lakuntza (Nafarroa), edo posta elektroniko honetara: amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com, hauek betez:

- Hemen deskargatu dezakezun inprimakia: http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com.es/2011/11/httpssites_30.html

- Klinikan, osasun etxeetan eta abarretan jaso ditzakezuen orriak.

• 689035120 telefonora deituz.

Josefina Arregui Klinika

barrutik kanpora

HKPk gobernuak bere herritarren eskubideak defenda ditzala exijitu du

Finantza erakundeen gizartearen kontrako jokabidearen aurrean etxebizitza eskubidearen aldeko mobilizazioak, baita Europako kontsumitzaileen defentsaren aldeko epaiek ere, hipoteka exekutatzeen inguruko Espainiako legedia behin eta berriz aldatzera behartu du gobernua.

Sanchez Morcillo eta Abril Garcia BBVAren kontrako kereilan, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak 2014ko garilaren 17ko epaiak baieztatzen du Espainiako hipoteken exekuzio sistema bateraezina dela prozesuko defentsa eta berdintasunarekin. Kontsumitzailearen babesa larriki urratzen dela irizten dio, bereziki prozedurak zordunak etxebizitza bakarra gal dezakeenean.

Epaia betetzeak hipoteka exekuzio sistema guztia berraztertzea ekarri behartuko luke, etxegabetze arriskuan dauden milaka pertsonaren babes judiziala zalantzan legokeelako.

Gobernuak, beste behin, bankuen interesen aldeko interpretazioa egitea nahiago izan du. Beste gai bati lotutako Errege Lege Dekretu batean, estalita, moldaketa txiki bat argitaratu du. Legea BOEn argitaratzen denetik hilabete bateko epe berezia zabaldu da. Epe horretan abusuzko klausulei buruzko indarrean dauden prozedurengatik helegitea aurkezteko aukera izanen da. Horretarako euren epaitegiaren erabakiari probintzi auzitegietako apelazioan helegitea aurkezteko aukera izanen da. Hau da, kaltetuei ez zaie jakinarazten helegitea aurkezteko aukera dagoenik.

Abusu klausulengatik izan diren hipoteka exekuzioetan lehen auzialdiko epaitegien kontrako erabakiei apelazioan helegitea aurkezteko aukera dago irailaren 7tik. Beti ere, autoa jakinarazten denetik 20 eguneko epean. Hala dio arau berriak. Abusu klausulen inguruan epaia izan den eta helegiterik aurkeztu ez den prozeduretarako hilabeteko aparteko epe bat zabaldu zen irailaren 8an. Beti ere, hipoteka exekuzioan oraindik etxebizitza eman ez bada.

Gaur bilduko gara, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikineko lehen solairuko 1 gelan.

Informazioa behar baduzu gai honen edo zure hipotekarekin lotutako beste gairen batekin, edo lagundu nahi bagaituzu, zatoz. Zain gauzkazu. Harremanetarako, 644 214 354.

Sakanako Hipoteken Kontrako Plataforma

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK beleixeguaixe

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

UDALAREN ESKAINTZA PLAZA LIBREAK: Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, oraindik plaza libreak daude. Gazteria, sukaldaritza, jokoaren pedagogia eta inguru-men hezkuntzan. Emakumendako autodefentsa, heltzeko plazera eta autoezagutza eta garapen pertsonala. Antzerki tailerra, Zelandi kiroldegian eta ludotekan ere.

sakanerria >>

SAKANA

Erosketa eta sarien zozketa

Sakatxartela Asteburua da hau. Bierrik Fundazioaren Beleixeguaixe txartelarekin asteburu honetan erosketak egiten dituztenak 2 sari ederren zozketan sartuko dira

Sakanako euskarazko hedabideak sustatzen duen Bierrik fundazioak 1.550 babesle ditu eta guztiek txartel bana dute, Beleixeguaixe txartela. Hainbat deskontu eta abantaila eskaintzen dizkie txartelak 1.550 babesleei urte guztian barna. Izan ere, Sakanako 80 establezimendu baino gehiagotan erabili dezakete txartela. Eta asteburu honetan, Sakatxartela Asteburuan erabiltzen dutenek, gainera, bi sariren zozketan sartuko dira. Aipatu establezimenduetan Beleixeguaixe txartela erakuste hutsagatik.

Sariak

1. saria. Egun erdirako auto elektriko baten alokairua (Bibehi enpresa) eta Olatzea hotelean bi pertsonarendako bazkaria.
2. saria. Iortia kultur guneko zinemarako hilabeteko bi bono eta Beleixeguaixe txartel bat.

HELBURU BIKOITZA

Bierrik fundazioak txartelaren bidez babesle diren 1.550 sakandarrei euren fideltasuna eskertu nahi die; euren eguneroko erosketetan abantailak lortzeko aukera eskaintzeaz gain, sari bat lortzeko aukera ahalbidetuz. Baina, aldi berean, Sakanako denda eta establezimenduei bultzada eman nahi zaie txartelarekin ere; krisi garai honetan sakandarrak ibarreko denda eta establezimenduetan erosketak egitera animatuz eta, horrela, herriak bizirik mantenduz.

BELEIXEGUAIXE TXARTELA LORTZEKO

948 564 275 eta 948 562 107 hots egin edo www.guaixe.net atarian sartu. Urteko 50 euro ordaindu behar dira. Urte guztian deskontu eta abantailak eskaintzeko aukera ematen du. Txartelagatik pagatutakoaren %25 errenta aitorpenean desgrabatuko du.

Hurrengo Sakatxartel asteburuak

Irailaren 26tik 28ra.
Azaroaren 28tik 30era.

» Uharte Arakil

Garai erromanikoko aztarnen bila: zer nolako bizimodua zuten jakitea da erronka

Giza hezurdurak aztertzen ari dira Zamartzen

Maialen Huarte Arano

Arkeologoak Erdi Aroko hobietan lanean. MAIALEN HUARTE ARANO

Eremu zehatzetan ari dira arkeologia-indusketa lanetan Fran Valle de Tarazagaren gidaritzapean. Lau hilabeteko lana izan du 45 laguneko taldeak eta hil honen amaieran emanen diote bosgarren kanpainari akabera. Aurkikuntzekin kontent daude, gero eta zantzu gehiago ageri baitira Zamartze inguruan herri erromanikoa ezarri zela erakusten dutenak. Joan den urtean bezala, aurten ere hilerria izan zen eremua aztertzen ari dira eta monasterioaren inguruan sortu zuten ortua ere bai.

Hilerrian, giza hezurdurak lurperatuta dauden tokian, are eta zulo handiagoak egin dituzte ahalik eta datu gehien jasotzeko. Lurraren goiko aldean, Erdi Aroko hezurdurak topatu dituzte eta beherago daude orain aztertuko dituzten erromaniko garaiko hezurdurak. Guztira, 300 bat hezurdura oso aurkitu dituzte. Euren DNAk aztertuko dituzte datozen hilabeteetan, eta modu horretan jakin ahal izanen dute nortzuk ziren, zein bizi mota izaten zuten edo zein izurrite edo gaixotasun pairatu zuten garai hartan. Erromaniko garaian bizi zirenen bizimoduaren berri izatea da xedea.

Zamartzeko monasterioan sortu zuten ortuan berriz, objektuak topatu dituzte. Erromaniko garaiko tresneria, zeramika, ontziak, txanponak... Horrek erakusten duena da Valle de Tarazagaren ustez, ez zela izan soilik monasterio bat Zamartze, baizik, herrixka ere sortu zutela. "Baratzeaz, nekazaritza lanez edo abeltzaintzakoez gainera, lan administratiboak egiten zirela ere erakutsi dute zenbait zantzuk", adierazi du.

Eremu zabalagoan ikertzen

Eremu zehatzetan ari dira lanean bai, baina gero eta eremu handiagoa ere ari dira aztertzen. Zamartzen nor bizi zen eta zer zegoen jakin nahian, eta bereziki bertan bizitakoen nondik norako gehienak ezagutzearren gero eta eremu handiagoa aztertzen ari dira.

Erromatar garaian zer nolako bilakaera izan zuten jakin nahi dute. Badakite bertan lanean diharduten arkeologo eta boluntarioek, mansio bat izan zela Zamartze. Araceliko mansioa deitu dio arkeologoak. Badakiten bestea da, III. eta IV. mendeetan suntsiketa bana pairatu zituztela. Baina gerora egin zuten finkatzea ari dira ikertzen orain.

Fruituak

45 lagun aritu dira lau hilabetez indusketa lanetan. Arkeologoak, ikasleak eta boluntarioak izan dira. Lurzoruaren behealdera iritsi izanak, erakutsi du herria sortu zutela Zamartzen: herria osatzen zuten kaleak topatu dituzte, eta denboran berritu izan direnak direla ere ikusi dute, beraz, denboran iraun duen herria izan dela erakusten du horrek.

XII. mendekoa izan daitekeen eraikuntza handi baten zenbait zimentarrirekin egin dute topo. Erdi Arokoa da hortaz. Oraindik ez dakite zertarako erabiltzen zen eraikin hori, baina baliteke ospitalea izatea edo Elizaren zabaltzea ere izan zitekeela uste dute.

Eskola baten eraikuntzaren aztarnak ere topatu dituzte. Horrek beste behin adierazten du Zamartze ez zela soilik erlijioarekin loturiko tokia izan. Herria izan zela erakusten duten gero eta arrasto gehiago agertzen ari direla nabarmendu du arkeologoak. Herri natural bat izan zen, ziurtagiririk gabekoa.

Bizi zirenen perfilaren bila

300 giza hezurdura dituzte aztertzeko. Nahikoa kantitate handia dela nabarmendu du Valle de Tarazaga arkeologoak. Gehienak dira Erdi Arokoak, zailtasun gehiago dituzte erromanikoetara iritsi ahal izateko. X. eta XV. mende tartean kokatu ditu hezurdura gehienak.

Bosgarren kanpaina izan da aurtengoa eta erronka asko dituzte aurretik oraindik. Horregatik, seigarren baten beharra ere izanen dutela uste du Valle de Tarazagak. Giza hezurdurak ateratzeaz bukatu eta gero, azterketak egitea da falta dena: "Egin ditugun zulaketa guztiak estali eta laster eginen dugu alde Zamartzetik". Udan egin ohi dituzte arkeologi-indusketak, eguraldia lagun izateko aukera gehien izaten delako, nahiz eta aurten ez duten zorte handirik izan. Egun asko izan dira euritsu, eta lur bustiarekin oso zaila egiten zaie lan egin ahal izatea. Dena dela, bosgarren kanpainarekin ere kontent gelditu dira.

Oraindik aztertzeko asko gera daiteke Zamartzen, baina ez dago arkeologoen esku lanarekin segitzea. Uharteko Udalaren interesaren araberakoa izan daiteke, baina baita Nafarroako Gobernuaren edo elizbarrutiaren araberakoa.

Garai zaharreneko aurkikuntzak

Erromatar garaiko zantzuak aurkitu dituzte, I. mendeko eraikuntzaren arrastoak. Horixe da Zamartzen aurkitu duten zaharrena. Objektuei dagokienez, Tiberio enperadorearen garaiko txanponak. Baita brontzezko eskulturak, zeramika, kristalezko ontzi sortak ...

Arkeologoak hezurdura garbitzen jaso aurretik. MAIALEN HUARTE ARANO

Agirin aurreratzerik ez

Madotz eta Aralarko santutegia lotzen dituen bidearen bazterrean dago Agiri (Agiregi) despopulatuan hirugarren urtez arkeologia-indusketa egitekoak ziren agorrilean. Pedro Arrese Villanueva, Zizur Nagusiko institutuan historia irakasle da, eta Ezpilleta elkarteko kidea, zuzendaria, eta bestelako arrazoiengatik ezin izan da lanean aritu.

Museoa zabaltzeko aukera

Azaroan egin nahi dute bosgarren kanpainaren akabera eguneko jaia. Egun berezia izan daitekeela ere iragarri du Valle de Tarazagak. Izan ere, museo bat sortzen ari dira, eta baliteke azarorako prest egotea. Bosgarren kanpaina amaitzeko modurik onena izanen litzateke arkeologoaren ustez, museoa zabaldu eta jendearekin batera Zamartzen urteotan bilatutakoa konpartitzea. Oraindik zehaztu gabe dago eguna, baina litekeena da azaroan egitea hori.

San Migelak

SAKANA

Egun handiak Aralarko santutegian

Astelehenean ospatuko da San Migel eguna, baina bihartik elizkizunak izanen dira

Aralarko santutegia jendetza erakarriko du asteburuan eta astelehenean. Irailaren 29a, San Migel eguna, lan eguna izanda ere fededun askok hartuko dute Aralarrerako bidea. San Migelen bederatziurrena bihartik astelehena bitartean ospatuko da, 18:00etan.

Igandean santutegira joaten direnak 11:00etan, 12:30ean eta 18:00etan izanen dituzte elizkizunak. Astelehenean, San Migel egunean, berriz, lau meza aurreikusi dira: 10:00etan, 11:00etan, 12:30ean eta 18:00etan. Ohikoa denez, elizkizun bakoitzaren ondoren aingerua gurtzeko aukera izanen da. Hala nahi duten fededunek bai igandean bai astelehenean aitortzak egiteko aukera izanen dute. Francisco Perez artzapezpikua santutegira etorriko dela iragarri dute.

Ermandadearen eguna

Jakinik egun hauetan jende asko pilatuko dela santutegian, bihar ospatuko da San Migelen Ermandadearen eguna. Kofradiarekin zerikusia duen erakundea da ermandadea. Aingeruaren irudia herriz herri egiten duen ibilbidean hura eramaten duten apaiza eta laguntzailea ostatatzeko eta irudia gauez zaintzeko eginkizuna dute ermandadeko kideek. Herri bakoitzean etxe bat dago. Ermandadeko kideak bihar, larunbata, eguerdian eginen den mezan elkartuko dira. Bihar, 18:00etan, bezperako meza ere izanen da.

Santutegi inguruak, atzera ere, jendez beteko dira.

FESTAK

Uharte Arakil:

San Migelak

>> Irailak 27, larunbata

12:00etan Festei hasiera emango dion suziria. Jarraian, auzatea plazan.
12:30ean Uharte Arakilgo konpartsa.
14:30ean Koadrilen arteko IV. paella lehiaketa. Udalak ardoa,ogia, mahaiak eta aulkiak jarriko ditu.
14:30ean Jubilatuen bazkaria. (Eguraldi txarra eginez gero, bi bazkariak frontoian izanen dira).
17:30ean Trasteando-ren kontzertua plazan.
19:00etan Pilota partiduak frontoi zaharrean: Onsalo-Lasa / Andueza-Gorriti.
20:00etan Auzatea.
20:00ean Play back lehiaketa. (Parte hartzeko izena momentuan eman behar da).
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 04:30era Dantzaldia Ttanttakarekin.

>> Irailak 28, igandea

12:00etan Meza.
12:45ean Uharte Arakilgo Konpartsa.
13:00etan Auzatea.
17:30ean Bordetxe abere zirkoa frontoi zaharrean.
19:00etan Txokolatada plazan.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Dantzaldirekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 04:00etara Dantzaldia Dantzaldirekin.

>> Irailak 29 astelehena

11:00etatik 13:00etara Haurrendako jolas parkea frontoian.
12:00etan Meza nagusia Mikel Donearen omenez.
12:45ean Uharte Arakilgo Konpartsa.
13:00etan Auzatea.
15:00etan Mozorro bazkari herrikoia plazan.
17:00etatik 20:00etara Haurrendako jolas parkea frontoian.
17:30ean Txintxon txapelketa jubilatuen elkartean.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 23:00etara Jai Guateke Tirri & Tery.

» Ekai

Elkarrekin afaltzera

San Migelak direla eta, larunbatean ekaitarrek mahaiaren bueltan eseri eta elkarrekin afalduko dute. 60 bat herritar bilduko dira Ekaiko ospakizunean. Musika lagun ordu txikiak arte iraunen du ospakizunak. Sainduaren omenezko elizkizuna izanen da etzi, goizez.

Olatzagutia:

San Migelak

>> Irailak 26, ostirala

19:00etan Txupinazoa, kultur etxetik. Erraldoiak eta buruhandiak.
19:45ean Japoniar bonbak, Intsumisio plazan.
19:45etik 22:00etara Diskofesta, San Migel plazan.
20:00etan Banaketa, San Migel plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.

Irailak 27, larunbata

9:00etan Dianak, Olatzagutia eta Ziordiko abesbatzekin.
10:00etan VIII. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa.
13:30ean Sari banaketa.
14:30ean Herri bazkaria, frontoian, Baralde fanfarrearekin.
17:30ean Burutik jota antzezlana, Sarasate plazan (euria eginez gero eskolako frontoian).
18:30ean Iparraldeko herri kirolak, areto futboleko pistan (euria eginez gero Erburua kiroldegian).
19:45ean Japoniar bonbak.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Laiotz taldearekin.
20:00etan Banaketa.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Laiotz taldearekin.

>> Irailak 28, domeka

10:30ean Auto klasikoen elkarretaratzea kiroldegiko pistan Urbasara abiatzeko.
11:00etatik 14:30era Artisau azoka, San Migel plazan (euria eginez gero Erburua kiroldegian).
11:00etatik 13:00etara Txu-txu trena, Intsumisio plazatik abiatuta.
11:30ean Kalejira erraldoi eta buruhandiekin, Sakanako trikitilariekin batera.
13:30ean Aitzinako autoen erakusketa, areto futboleko pistan.
16:00etatik 19:00etara Txu-txu trena, Intsumisio plazatik abiatuta.
18:00etan Altzaquillo. Euskal dantza eta flamenkoa uztartuta, Erburua kiroldegian.
19:15ean La Cigarra txarangak Juanjo Amezgarai omentzeko kontzertua, Erburua kiroldegian.
19:45ean Japoniar bonbak.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Errmerian.com taldearekin.
20:00etan Banaketa.
22:00etan Zezensuzkoa.

>> Irailak 29, astelehena

11:30etik 13:30era Txokolatezko eskulanak, San Migel plazan (euria eginez gero frontoian).
18:00etan Tain eta Bremengo musikariak antzezlana, kultur etxean.
19:00etatik 21:00etara Disko festa, San Migel plazan.
19:45ean Japoniar bonbak, Intsumisio plazan.
20:00etan Banaketa.
21:00etan Zezensuzkoa.

Artisauak

Joaquin Dominguez, Cuero Repi (larrua, Arizkun); Ana Urrutia eta Julio Molinuevo (txalapartak, larruak eta ukenduak, Elbete); Fco Javier Librado, Artemader (zura eskuz lantzea, Zaragoza); Aitor Gisadola (bitxigintza, Elizondo); Itziar Mendizabal eta Gorka Elordui (zura lantzea, Oronoz-Mugaire); Consuelo Agudelo (panpinak, Gasteiz), Edorta Murua (euskal ikurrak eta irudiak, Morentin); Oihana Santamaria, La Jabonera de la Almendra (eskuz egindako xaboiak eta kosmetika, Gasteiz); Mai Kyk eta Mireia Segura (ehungintza, Zumaia); Eba Barrio, Goikala (Zeramika, Lagran); Josetxo Ventura (eskuz landutako aluminio birziklatua, Donostia); Ricadro Garcia (zura lantzea, Gasteiz); Susana Corella, Xuxiart zeramika (zeramika, Amurrio); Birbira, birziklatuz sortu (neska-mutilendako tailerra, Arizkun); Javier Alvarez (zura, harria, larrua, eta hezurra lantzea, Olatzagutia); Toñi Amado (goma eva lantzea, Olatzagutia); Legarbeko karakolak (karakolak, Etxarri Aranatz); Jeingenekoa (esneiak, Etxarri Aranatz), Segundo Meabe (euskal pastelak eta ogia, Gujuli); Sarabe (esnekiak, frijituak eta beste, Urdiain), Boluntario taldea (Olatzagutia), Mila kolore (Sakanako ez-gaitu elkartea), sakandar berriak eta Immigrazio Zerbitzua (henna, Senegalgo trentzak, Marokoko begi margotzea, Marokoko tea eta pastak, sentsibilazio gunea, munduko musikak..., Sakana).

Herri mugimenduen egitaraua

>> Irailak 26, ostirala

23:00etan Kontzertuako gaztetxean: Enkore eta Laia.

>> Irailak 27, larunbata

14:30ean Herri bazkaria, San Migel plazan.

Oharra: 28 gazteen epaiketen gastuak ordaintzeko txosna jarriko da plazan.

SAKANA

Nekazal ibilgailuen IAT egutegia zehaztua

Ziklomotorrek ere pasa beharko dute azterketa teknikoa

Udazkenarekin batera, urtero moduan, nekazaritza eta abeltzaintza lanetan ibiltzen diren ibilgailuen azterketa teknikoa (IAT) pasatzeko garaia iritsiko da. Aldi berean, ziklomotorrei ere eginen zaie azterketa. IAT egiten duten teknikariak lastaileko lehen hiru asteetan izanen dira Sakanan.

IAT

Data	Herria
Lastailak 1, asteazkena	Irurtzun
Lastailak 2, osteguna	Ihabar
Lastailak 3, ostirala	Uharte Arakil
Lastailak 6, astelehena	Uharte Arakil
Lastailak 7, asteartea	Uharte Arakil
Lastailak 8, asteazkena	Arbizu
Lastailak 9, osteguna	Unanu
Lastailak 10, ostirala	Etxarri Aranatz
Lastailak 13, astelehena	Lizarraga
Lastailak 14, asteartea	Iturmendi
Lastailak 15, asteazkena	Iturmendi
Lastailak 16, osteguna	Altsasu
Lastailak 17, ostirala	Olatzagutia
Lastailak 20, astelehena	Ziordia

»

Hiru telefono antena berri

Nafarroako Gobernuak erkidegoko Azpiegiturei buruzko Lurralde Plana aldatu eta eguneratzeko Vodafone España, S.A.k aurkeztutako espedienteak onartu ditu. Enpresari herrialdean makina bat telefono antena jartzeko baimena ematen dio. Horietako hiru Sakanan daude: Irurtzunen, Lakuntzan eta Ziordian.

»

Motorzaleek errepide bazterreko babes-hesi babestu gehiago eskatu dituzte

Herri Lan Departamentuak 2008ren urte hasieran Sakanako hainbat errepidetan babes-hesien azpian beste metalezko xafla bat jarri zuen, lurreraino iristen dena. Hala, puntu horietan erortzen diren motor gidariek eta txirrindulariek ez dute babes-hesien zutoinen kontra jotzen. Izan ere, metalezko zutoin horien ertzak , erorketaren abiadurarekin batera, labanen gisa jokatzen dute eta hainbat motor-gidarik eta txirrindularik beso edo hanka zatiak galdu dituzte.

Departamentuak 2009an utzi zion errepideetan babes-hesi babestuak jartzeari edota ertzik gabeko zutoinak jartzeari. Horregatik, motor-zale elkarteek haien segurtasuna bermatuko duten neurriak hartzea eskatu diote Nafarroako Gobernuari.

» Satrustegi

Satrustegiko kalea.

Udala kaleak konpontzen ari da

Makina bat aldiz eskatu dute Arakilgo Udalak eta Satrustegiko Kontzejuak herriko kaleak eta sareak berritzeko diru-laguntza. Milioi erdi euroko inbertsioa eskatzen dute lanek. Baina Nafarroako Gobernuak ez du halakorik eta luzamendutan ari da. Ikusita euria egiten duenetan kaleak erreka bihurtzen direla, Arakilgo Udalak ahal duen neurrian konponketa batzuk egitea erabaki du.
Udaleko langileak Satrustegin ari dira lanean. Kaleak garbitu, estoldak txukundu eta kaskailuzkoak ziren kaleetan porlana zabaltzea da haien egitekoa. Ruben Goñi alkateak esan digunez, 7.000 euro bideratu dituzte lan horiek egiteko.

» Irurtzun

Udalak ezgaituei aparkatzeko txartelak ematea arautu du

Eskaerak udaletxean egin daitezke, dagozkion agiriak aurkeztu ondoren

Irurtzungo Udalak pertsona ezgaituek ibilgailua aparkatu ondoren joan-etorri handirik ez egiteko, aparkatzeko txartelak ematea arautu du. %33ko ezgaitasuna duten eta txartela eskuratu nahi dutenek Irurtzunen erroldatuta egon beharko dute, autoa altan emanda eta ezgaitasunari dagozkion ziurtagirien jabe izan beharko dute. Gehienez ere bi autorako txartela emanen da. Araudiak ere haien ahaide edo zaintzaileei txartela eskuratzeko aukera aitortzen die. Txartel iraunkorrak eta aldi baterakoak (5 urte) egonen dira.

SAKANA

Sakantzen Sareak historia ardatz hartuta topaketa ireki berriak antolatu ditu

Sakantzen Sarearen Udako ikastaroetan Agiriko despopulatua bisitatu zuten.

Etorkizuneko apustu gisa, sareak ibarraren ondare hori ezagutarazi eta balioa eman nahi dio. Larunbat eta igande goizean izanen dira topaketa irekiak

Sakantzen Sareak Udako Ikastaroetan antolatutako Sakanako historiari buruzko saioek izandako arrakasta ikusirik, astebururako bi topaketa ireki antolatzea erabaki du. Bosgarren eta seigarren topaketa horien ardatza, atzera ere, ibarreko historia izanen da. Sareko kideen iritziz, "etorkizuneko apustua da ondare hori ezagutaraztea eta balioa ematea. Sakanaren erakargarritasuna, turismoa, kultura eta garapena bultzatzeko tresna baita gure ondarea, beti ere iraunkortasun irizpidez erabiltzeko". Horregatik, historia ondarea berreskuratzen jarraitzeko topaketak antolatzea erabaki du sareak. Interesa duten guztiak gonbidatu dituzte. Antolaketan LEADER programa, Garalur, Gobernua eta Garapen Agentziaren laguntza jaso du.

Duela 2000 urteko Sakanako bizitza moldea eta gizartea

Irailak 27, larunbata, 10:00etatik 13:00etara. Zamartzeko aztarnategiari bisita. Dinamizatzaileak: Sak-in Kontsulting eta Oihan Mendo.
Duela bi mila urte Sakanako bizitza moldeek eraldaketa sakonak pairatu zituzten kultura erromatarraren etorreraren ondorioz. Horren eraginez leinu egitura zuten nekazaritza-komunitateak aldatzen joan ziren hiri-mundura eta merkataritza harremanetara zuzenduriko gizartea sortuz. Usadio berriek aztarna sakona utziko zuten, oraindik orain gure garaietan ikusgarriak direnak.

Burundako mandazainak XVIII. mendean

Irailak 28, igandea, 10:00-13:00. Etxarri Aranatzeko Kultur Etxean topaketa eta Artasoroko galtzadara bisita. Dinamizatzaileak: Sak-in Kontsulting eta Nicolas Arbizu Gabirondo
Mandazain lanbidea gure eskualdean ohikoa bezain ezezaguna zen. Burundako hainbat herritan populazioaren herena lanbide horretatik bizitzen zen. Itsasaldearen eta barnealdearen arteko merkataritza eta garraioaz arduratzen ziren. Olioa, ardoa edota txokolatea ziren gai nagusienak. Iturmendin zein Urdiaineniku ditzakegun etxetzar ugari garai eta lanbide horretan dute jatorria.

» Arakil

Etxarrengo frontoia arakildar guztiendako erabilgarri

Udalak eta kontzejuak hitzarmena sinatuko dute Aranburu pilotalekua arakildar guztiek frontoia erabil dezaten. Horrek haren erabilera areagotuko du

Udalak argizuloak konponduko ditu.

Arakilgo Udalak hilaren 11n egindako bilkuran aho batez oniritzia eman zion Etxarrengo Kontzejuarekin hitzarmena sinatu eta Aranburu frontoia arakildar guztiek erabiltzeko aukera izan dezaten. Horrela, Arakilgo Udalak beste urrats bat emanen du kontzejuen eta arakildarren arteko harremanak sustatzeko, baita kirol jarduerak egiteko eremuen beharrak betetzeko.

Etxarrenen taberna zegoenean frontoia erabiltzeko aukera bazuten arakildarrek, baina gaur egun itxita dago. Erabilera bakarra etxarrendarrek egiten dute, kontzejuan aldez aurretik eskaera ginez gero. Horretaz aparte, pilota, pala eta frontenis txapelketak eta entrenamenduak egiten dira. Aukera hori zabaltzeko kantxa-zainaren figura sortuko da.

Baldintzak

Aranburu pilotalekua erabili nahi duenak aurretik erreserba egin eta ezarritako tarifak ordaindu beharko ditu (etxarrendarrek argindarragatik ordaindu beharko dute bakarrik). Etxarrendarrek kantxa-zainaren bidez egin beharko dute erreserba. Beti ere, lehentasuna eskolek eta pilota, pala eta frontenis txapelketek izanen dute.

Eskaerak 24 orduko aurrerapenarekin egin behar dira eta kantxa-zainari lau euroko alokairua ordaindu beharko zaio (dutxak eta aldagelak erabiltzeko aukera barne). Argia ordaintzeko egungo sistema automatizatua erabili beharko da. Etxarrengo festen aurreko astean eta ondorengo egunetan frontoia ezin izanen da alokatu.

Hitzarmenean jaso denez, Etxarrengo Kontzejuak argindar, berogailu eta bestelako gastuak ordainduko ditu eta mantenuaz arduratuko da. Horretarako, diru-sarrerak erabiltzeko aukera izanen du. Hitzarmena martxan jarri eta gero berrikusiko da baldintza hori eta egoki jotzen bada berridatzi.

Kantxa-zaina etxarrendar bat izanen da, erreserbak hartzeko telefono mugikorra duena. Bera arduratuko da frontoiaren erabilera txandak emateaz eta giltzen ardura izanen du. Kantxa, harmaila eta aldagelak garbitu beharko ditu. Lan horiek udalak kontratatzen dituen langabetuak eginen dituzte haiek lanean dauden garaian, eta kantxa-zainari 500 euro ordainduko dizkio.

Konponketa

Ibarreko zuzkidura espazioak sortzeko eta hobetzeko hitzarmena bi premiaren ondotik sortu da. Bata, arakildarrek frontoi estalian aritzeko nahia da. Bestea, berriz, Etxarrengo frontoiko hegoaldeko fatxadako plastikozko argizuloak birmoldatzeko premia. Izan ere, euria egiten duenetan haietatik euria sartzen da. Udalak 5.510,19 euroko aurrekontua onartu dio Arbizuko Irura enpresari eta hark konponduko ditu dozena erdi argizuloak.

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

SAKANA

Plataformak prentsaurreko jendetsua eman zuen.

3MBk Nafarroan errausketa "egiazki baztertzeko" exijitu du

Plataformaren arabera Nafarroan errausketa baztertzeko iragarpena "ez da egiazkoa FCCri Olatzagutiko porlandegian milaka tona hondakin erraustea baimentzen bazaio"

Plataformak lastailaren 11rako protesta mobilizazioa iragarri du Altsasun eta parte hartzera deitu du

Bai UPNk bai PSNk Nafarroan errausketarik ez dela izanen esan ondoren, 3 Mugak Baterak (3MB) plataformak "egiazki baztertzeko" exijitu du, Olatzagutiko porlandegiko energia balioztatze egitasmoa bertan behera uzteko eskatuz. 3MBtik gogora ekarri dute aipatu bi alderdiek Nafarroako Hondakin Planean Energia Balioztatzeko Planta egitea aurreikusten zutela eta haren tamaina txikitzeko Olatzagutiko porlandegian balioztatzea baimendu zutela. "Orain planta egitea baztertzen dute eta hondakinak errausteko zementu-fabrika utzi dute".

3MBtik adierazi dutenez, "hondakinak erraustearen negozioa FCC multinazionalaren esku uztea ez da Nafarroarendako komenigarria". Aurreikusi eta eginen ez den Energia Balioztatzeko Plantan Nafarroan sortutako hondakinak erraustuko lituzke. "Baina birziklatzeari buruzko legedi berriak kontuan izanik, Nafarroako hondakinekin planta ez litzateke errentagarri izanen".

Nafarroako eta kanpoko hondakinak

Arriskua FCCk eta Nafarroako Gobernuak 2012an sinatutako hitzarmenena ikusten du plataformak. Han jaso zen lehentasunez Nafarroan sortutako hondakinak erraustuko liratekeela. "Beraz, nahiz eta guk hondakinak gutxitzen eta birziklatzen gure lana egin, beste edozein tokitatik ekarritako milaka tona hondakin Olatzagutiko porlandegian, Nafarroan erraustuko da".

Atzera ere, 3MB plataformak gogora ekarri du hondakinen errausketak pertsonen, osasunean, ingurumenean eta inguruko eskualdeetako ekonomian eragina duela. Horregatik, errausketa betiko baztertzea eta zero zabor helburu duten hondakinak berreskuratzeko politikak sustatzeko eskatu du.

Adibidea

Porlandegiak hondakin kopuru handiak errausteko gaitasuna duela azpimarratu du 3MBk. Horren adibide gisa Sevillako Alcala de Guadairako porlandegia jarri du. Andaluziako Juntari 292.000 hondakin tona errausteko eskatu dio, horietatik 150.000 tona errefusa lirateke.

SAKANA

Gudari Egunean, memoria eta askatasuna ardatz

Bihar, 18:00etan, Altsasuko Foru plazatik musikak protagonismo berezia izanen duen manifestazioa abiatuko da

Memoriaz, askatasun helburu leloarekin ospatuko da aurten Gudari Eguna. 1936ko estatu kolpetik askatasuna helburu zuten makina bat gizon eta emakume bidean gelditu direla nabarmendu dute antolatzaileek. Eta gaineratu du herri honek denak bere imajinario kolektiboan mantentzen dituela. "Haien memoriak jakinarazten digu nor garen, nondik gatozen eta norantz goazen".

Larunbateko manifestazioaren antolatzaileek esan dutenez, 1936an edo 2014an askatasunak helburu izaten jarraitzen du. Pentsa dezagun, jada, hemendik aurrera inork ez duela bere bizia arriskuan jarri behar izanen herri honen eskubideak lortze bidean; hori ere, herri honen borroka eta lanaren emaitza da". Hildakoak ahaztea izaerari uko egitearen pareko litzatekeela ziurtatu dute. Manifestazioari dagokionez, ez dute ohiko mobilizazioa iragarri: "Leloak tartekatuz musika izanen da manifestaldiaren gidari nagusia". Musikan gordea dagoen memoria erakutsi nahi dute horrela. Biharko manifestaziora "gure iraganaren memoria, aitortza eta egia aldarrikatzen dugun sakandar guztiok gaude gonbidatuta".

» Altsasu

Masta ikurrina zatiekin.

Batzokitik ikurrina lapurtu dute, berriro

EAJ-PNV: "Altsasutik abertzaleen sinbolo hau desagerrarazteko UPNren estrategiari segida ematen diote" egin dutenek

Festetan Bakea kalean dagoen Batzokitik ikurrina ostu zutela salatu du Altsasuko EAJ-PNVk. Pasa den urteko azaroan ere gauza bera gertatu zen. Jeltzaleen Altsasuko Udal Batzordeak gogor salatu du lapurreta, haren iritziz "abertzale garen guztiok arbuiatu beharko genukeen erasoa da".

NaBai 2011 koalizioan zinegotzi diren alderdikideek adierazi dutenez, "Altsasun identitate sentimentu ugari daudeetagukguztiendako errespetua eskatzen dugu. Ikurrina moduko sinbolo bat ez jazartzeko ekimenak babestu dituguherrian". EAJ-PNV-tik eurenegoitzako ikurrinarekiko errespetua eskatu dute; "badirudi batzuei gure egoitzako ikurrinak traba egiten diela. Espazio publikotik sinbolo hori kentzea, lapurtzea, UPNrenestrategiari bide ematea da. Hark helburu bera bilatzen du epaitegietan".

GALen biktimak omenduko dituzte

Bihar, 11:30ean, Hendaiako Beltzenia frontoian

30 urteko "inpunitatea" salatu eta "justizia" eskatuko dute ekitaldian. Baita eraildakoen senide eta lagunei babesa adierazi ere. GALek hildakoen artean dago Angel Gurmindo Lizarraga, Stein. 1984 otsailaren 8an hil zuen GALek, Bixente Perurenarekin batera.

Geroa Bai, hauteskundeak prestatzen hasia

Geroa Bai koalizioa hasi da udaletako eta Nafarroako Parlamenturako hauteskunde hautagaitzak prestatzen. Parlamentuko zerrendako buru Uxue Barkos izanen da. Bere hautagaitza babestu zuten herriguneen artean Altsasukoa dago.

Lastailaren 3an Geroa Bairen herrigune guztietan bilerak eginen dira. Boto sekretuaren bidez gerobaikideek parlamenturako hautagaitza baloratzeko aukera izanen dute. Egun horretan egoterik ez dutenek Gero Bairen Iruñeko egoitzan botoa emateko aukera dute astelehenetik ostegunera. Aukera bera izanen dute herrigune bateko kide ez diren geroabaikideek. Bestalde, Altsasuko herrigunea udaleko zerrenda prestatzen hasia dela jakinarazi du.

Urbasan fusilatutako seiren identitate bila

Gerrakoan euren senideak Urbasan hil zituztela uste duten familiei Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkartearekin harremanetan jartzeko eskatu zaie: affna36@yahoo.es

Joan den urteko apirilean Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarteko eta Aranzadi zientzia elkarteko kideek Urbasako saroiko leizean bilaketa lanak hasi zituzten. Balbino Bados, Balbino Garcia eta Gregorio Garciaren gorpuzkinak opatu zituzten. Baita beste zazpirenak ere. Haietako bat berriki identifikatu ahal izan dute: Jose Urbizu, Zegamako 27 urteko ikazkina. Euren senideek aurki jasoko dute.

Urbasan opatutako sei pertsonen identitatea jakitea falta da. Horregatik, Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarteak deia egin du: euren senideak Urbasan erail zituztela uste duten familiak elkartearekin harremanetan jarri. "Bizi-eta familia-historia bat osatzeko norbaitekin parekatu beharra daude gorpuak". 1936an fusilatutako pertsona horiek lezera botaz haien heriotza ezkutatu nahi izan zutela nabarmendu du elkarteak.



Leizean opatutako buruhezurra.

Ikurren Lege berri baten alde sinatzeko deia egin dute

Epea luzatu eta abenduaren 15a bitarteko epea izanen da sinadura emateko

Udan sinadurak biltzen hasi ondoren, ahalik eta sinadura gehien biltzeko asmoz epea zabaldu dute. Halaxe jakinarazi dute Nafarroan Guztion Ikurrak Herri Ekimen Legegileko (HEL) sustatzaileek. Herritar sarea jabetu da Nafarroako toki guztietara ez direla iritsi eta hori zuzendu nahi du. Horretarako boluntarioen eta mota guztietako eragile sozial, sindikal eta politikoen inplikazioa eskatzen ari dira sarea osatu eta sinadura orriak zabaltzeko.

Jasotako sinadura guztiak Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dituzte, ikurren legea moldatu eta, besteak beste, ikurrinaren kontrako jazarpena eteteko eskatuz. "Herritarrek bere egiten dituzten ikurrak debekatu edota bere egiten ez dituztenak inposatzea ez da zilegi, ez da bidezkoa eta ez dugu onartzen".

Presoak hurbiltzea eskatzeko, auzitara

Euskal Preso Politikoek Kolektiboko (EPPK) kideek udaberrian espetxeratuak dauden kartzeletako trataera batzordeei idatzia bidali zieten. Sorterritik gertuen dagoen espetxera gerturatzeko eskaera guztiei ezezkoa eman diete denei. Hori dela eta, EPPK-ko preso bakoitzak erabaki horri helegitea aurkeztuko dio auzitegian.

EPPK-koek adierazi dutenez, etxetik gertuko espetxean egotea "oinarrizko eskubidea" da. Horretarako, Espainia, Frantzia eta nazioarteko makina bat lege, araudi eta gomendio aipatu dituzte. Aldi berean, 25 urtez indarrean egon den sakabanaketak lege horiek eta, bereziki, giza eskubideak urratzen dituela salatu dute.

Deklaratzera deituak

Gaur goizean hiru altsasuarrek Iruñeko auzitegira joan beharko dute. Herenegun, 23:00etan, euren etxean jaso zuten zitazioa Guardia Civilen eskutik. "Terrorismoa goratzea" leporatzen zaiela dakite, baina ez dakite zein gertaeragatik. Herritar gehiago deitu ote dituzten ere ez dakite.

» Arbizu / Olatzagutia

Salinas eta Ladron sakandarrekin Loiolan. Olatzagutian kontzentrazioa egin zen.

Deklarazioekin itxi da gazteen kontrako epaiketako lehen astea

Espainiako Auzitegi Nazionalean astelehenean hasi ziren 28 gazte epaitzen. Segiko kide izatea eta, beraz, erakunde terroristako kide izatea egotzi diete. Sei urteko espetxe zigorra eskatzen dute haiendako. Espainiako Poliziak atxilotutako 20etatik 19k salatu dute tortura. Gainontzeko 8ak Frantziako Poliziak atxilotu zituen eta batek ere ez zuen torturarik salatu. Epaituen artean daude Arbizun bizi den Ainara Ladron eta Imanol Salinas olaztiarra.

Ladron asteartean deklaratu zuen epaile aurrean. Akusazioa ukatu zuen. ""Independentziaren eta sozialismoaren alde, autodeterminazioaren alde, militantzia politikoan aritu naiz, eta ari naiz". Salatu zuenez, atxilotzeko unean idazkari judizialari behin eta berriz esan zion ez zuela deklaratu nahi, baina hark ez zuen aktan jaso. Ladronek asteartean torturak eta sexu erasoak salatu zituen, instrukzio epailearen aurrean egin zuen moduan. Poliziak etxeko deklarazioa ukatu zuen. Ladron, haurdunaldiagatik, auziaren azken egunera arte ez du epaitegira joan beharko.

Asteazkenean deklaratu zuen Salinasek. Azaldu zuenez, atxiloaldiaren aurreneko orduetan jaso zituen kolpeak, Iruñean eta Madrilera bidean. Ez zuen galdeketa ilegalik izan eta komisaldegian eta instrukzio-epailearen aurrean akusazioak ukatu zituen Salinasek. Herenegun gauza bera egin zuen. Salinasek etxebizitza eskubidearen aldeko plataforman edo Burlatako festen batzordean izandako jardunaren inguruko azalpenak eman behar izan zituen. "Militante politiko-sozialak direlako epaitu zituztela nabarmendu zuen.

Salinasek berak 2008an kale borrokagatik izandako epaiketa baten inguruan ere argibideak eman zituen. Absolbitu egin zuten, gertaerak jazo zirenean Italian bizi zelako eta ezin zelako bera izan. Baina Salinas auzipetzeko aurretik atxilotutako baten deklarazioan oinarritu ziren. "Horrek erakusten du nola funtzionatzen duen honek: torturapeko deklarazioak oinarri hartuta epaitzen gaituzte".

Desobedientzia

Auzipetuak igandean Loiolako basilikan prozesua salatu eta guztiak libre uzteko eskatu zuten. Euskal Herriko gatazkak konponbide demokratikoa lortuko badu guztion ekarpena dela beharrezkoa gaineratuz. Bost gazte Loiolan gelditu ziren, Aske Gunean. Astelehen iluntzean atxilotu zituen Ertzainak. Epailearen aginduz Soto del Real espetxean sartu zituzten. Haien artean dago Salinas.

Astelehenean auzitegian ziren gazteak epaiketa hasi orduko eten egin zuten, desobedientzia eginez. Aldi berean epaiketa politikoen aurkako eta konponbidearen aldeko mezuak erakutsi zituzten.

» Arakil

Arakilgo Udala Plazaola Turismo Partzuergoko kide

Plazaolako ibilbidea ibarraren garapenerako aukera dela ikusita sartzea erabaki du

Arakilek Sakanako Garapen Agentzia, Cederna-Garalur eta Plazaola partzuregoaren arteko elkarlana sustatu eta eskatuko du

Plazaola bide berdea Arakilgo ibilbide sarearekin lotu daiteke.

Bide berde moduan Plazaolako trenaren ibilbidea berreskuratzeko egitasmoa errealitate bihurtzen ari da pixkanaka. Hura ibarrarendako turismo baliabide egokia izan daitekeela ikusita, Arakilgo Udalak aho batez erabaki du bide berdea sustatzen duen Plazaola Turismo Partzuergoko kide egitea. Ruben Goñi Urroz alkatea eta Juan Jose Madariaga Orbea izanen dira udala partzuergoan ordezkatuko dutenak.

Goñik esan digunez, "Bi Haizpe inguruan Imotz, Arakil eta Irurtzun lotuko dituen azpiegitura egitea da. Beste batzuk zerbait eginen dutelakoan ezin dugu geldirik egon. Ekimena izan behar dugu". Alkateak esan digunez, Goldaratzen zubi bat egin behar da gero handik Sakanara sartzeko. "Irurtzungo Udalarekin elkarlanean ariko gara Imotzekin lotura hoberena bilatzeko".

Turismoa

Arlo hori sustatu asmoz Arakilgo Udalak azken urteetan egin duena zerrendatu digu Goñik: "ibilbide sare bat egin dugu, Aixitako gazteluan indusketak eta ondare ez materiala jaso dugu. Asmo berarekin lan egin dugu Sakanako Garapen Agentziarekin batera; Sakanako Plan Estrategikoan jaso direnak".

Andoain eta Iruñean lotuko dituen ibilbideak "turismo masa garrantzitsua" ekar dezakeela uste du Goñik, "are gehiago, Eurovelo sarearen zati denean". Arakilgo landetxe eta turismo-apartamentuak dagoeneko partzuergoko kide direla azaldu digu, datua gainera-tuz: "guztien artean ia ehun pertsonak lo egiteko eskaintza egiten dute".

Partzuergoan egoteak ekarriko dituen onuren artean alkateak zerrendatu ditu Plazaolak eskaintzen dituen tresna guztietan presente egotea, ibarra mapan kokatzea eta Arakilgo turismo-baliabideen berri zabaltzea.

Alegazioak

Plazaola ibilbidea bide bihurtzeko tramitazioa aurrera doa eta Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuaren egitasmoari alegazioak aurkeztu dizkio. Sakanako ibilbidean trenak Aizkorbe eta Artadiko tunelak zeharkatzen zituen. Gaur egun biak luiziengatik itxiak daude. Bestelako ibilbide bat proposatu du gobernuak.

Arakilgo Udalak, hala ere, nahi luke ibilbidea seinaleztatuta egotea tunelen ahoak. "Haiek itxita badaude ere, jendeak jakin dezala trena nondik joaten zen. Tunelei buruzko argibideak ematen dituzten panelak jar ditzatela eta beste", esan digu Goñik. Artadiko tunela dela eta, Irurtzuneraino jaitsi beharrean, menditik bide bat egitea proposatu du Arakilek.

MOTZEAN

Kontzejuak Udalaren esku utzi du hirigintza lizentziak emateko eskumena

Delegazioa ezeztagarria da eta Lizarragabengoako Kontzejuak edozein momentutan berreskuratu dezake

Lizarragabengoko Kontzejuak apirilaren 24an egin zuen batzarrean erabaki zuen hirigintza lizentziak emateko eskumena Etxarri Aranazko Udalari delegatzea. Azken horrek garilaren 7ko udal bilkurak aho batez onartu zuen eskumen delegazioa. Onartutakoaren arabera, Etxarri Aranazko Udalak Lizarragabengoko Kontzejuko buruari helaraziko dizkio obra lizentzien eskaerak, jakinaren gainean izateko eta ekarpenak edo herriaren iritzia emateko. Legeak dioen bezala delegazioa ezeztagarria da, edozein momentutan Lizarragabengoko Kontzejuak atzera egiten ahal baitu.

Udalak kale izenak egokitu ditu

Uharte Arakilgo Udalak herriko kaleen eta atari zenbakien zerrenda eguneratua onartu du; atarien zenbakiekin eta Tracasak prestatutako planoekin batera. Jendaurreko epean alegaziorik onartu ez denez, behin betiko onartu da zerrenda. Herritik kanpokoendako izendegia ere onartu du Uharte Arakilgo Udalak.



GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)
TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA
www.tanatoriosirache.com

Jose Luis Razkin Eraso

I. urteurrena

Igandea 28, 11:00etan, haren aldeko meza izanen da Lakuntzako elizan.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Oroigarriak

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Lizarragabengoan etxea salgai. Berrituta, sukaldea jantzita. Prezio negoziagarria. Telef: 667 85 33 79.

Etxarri Aranazen mustutzeko dagoen pisua salgai. 70 m2, 2 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, arropa lehortzeko gela. Igogailua, berogailua (gasa), 10 m2ko trastelekua, garaje-plaza. Ikuspegi bikainak. Tel 687 73 65 55.

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragan pisua alokairuan. Altzariz hornituta, sukalde-jangela, 3 logela, komuna eta terraza. Leiho zabalak. Hots egin 609 33 16 59 telefonora.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Etxarri Aranazko Larraza taberna. Eskualdatzen da. Interesatuek deitu 948 56 70 71 telefonora.

OPARITAKOAK

3 arratoi txakurkume oparitzen dira. Hots egin 678 80 37 34 telefonora.

Ortxi oparitzen dut ezin dudalako zaindu. Nahiko lasaia. Bakarrik egotera ohituta. Basoa gustuko du. Ongi konpontzen da jendearekin eta beste txakurrekin. Haurrekin patzientzia du. Tel 680 10 65 89.

Opatutakoak /galdutakoak

GALDUTAKOAK

Txaketa bat galduta. Altsasuko festetan plazaren inguruan. 7 urteko haur batena. Txaketan izen bat dago. Telefonoa 686 04 98 56.

Ikastaroak

Zuzenean saltzeko estrategiak. Arbizun, azaroak 7an eta 14an. Ordutegia: 9:00 – 18:00. Argibide gehiago 948 56 70 10 telefonoan eta sakana.admon@cederna.es posta elektronikoan.

AES. Berria Enpresarako ingelera, irailean; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua;; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-azaroa; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Oharrak

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Saharaztan boletoen zenbaki sarituak. 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritza - trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritza.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

JAIOTZAK

- **François Gorris Mendy,** abuztuaren 3an Lakuntzan.
- **Hodei Bello Cerviño,** abuztuaren 22an Lakuntzan.
- **Naroa Lazkano Mozo,** abuztuaren 29an Lakuntzan.
- **Kier Waller Perkaz,** irailaren 9an Ziordian.

EZKONTZAK

- **Javier Fernandez Cordero eta Agurtzane Sergio Bengoetxea,** irailaren 13an Altsasun.
- **Migel Marquez Romero eta Judith Silvia Riohe Bosoy,** irailaren 20an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Manuel Montero Romero,** abuztuaren 4an Lakuntzan.
- **Migel Lizarraga Larraza,** irailaren 2an Dorraon.
- **Eusebio Ezkerra Osteriz,** irailaren 8an Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

TXIRRINDULARITZA

ERBITI MUNDIALETAN: Ponferradan jokatzen ari den Txirrindularitza Mundialean parte hartuko du Hiriberriko Imanol Erbitik. Valverde, Purito eta Luis Leon Sanchez taldeburuen alde egitea izango da bere egitekoa.

kirola >>

Aizkora



Floren Nazabal.

Nafarroako txapela janzteko hautagai nagusia dela erakutsi du Nazabalek

Euskal Herriko Maila Nagusiko finalerako sailkatu ondoren, Floren Nazabalek Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatu zuen igandean Uharte Iruñean. Zazpi aizkolarik hartu zuten parte: Floren Nazabal, Jon Rekondo, Ruben Saralegi, Ander Erasun, Donato Larretxea, Oihan Larretxea eta Julen Kañamares.

Aizkolariek bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu behar izan zituzten, finalean egin beharreko lanaren erdia. Bi multzotan aritu ziren lanean.

Floren Nazabal osasun arazoekin ibili zen aurreko astean Euskal Herriko kanporaketan, baina zalantza guztiak argitu zituen etxarriarrak, kanporaketan jaun eta jabe izan baitzen (14:42). Bere atzetik sailkatu ziren Rekondo (15:33), Saralegi (15:55), Erasun (16:31), Oihan Larretxea (17:14), Kañamares III.a (17:29) eta Donato Larretxea (17:31). Lehendabiziko bostak lastailaren 5ean Etxarri Aranatzen jokatuko den Nafarroako final handirako sailkatu ziren.

Txirrindularitza

Sakana, pedalkadaz pedalkada

Bizikletaren festa

Hori izan nahi du XXI. Sakanako Bizikleta Egunak. Bertan parte hartzera animatu dituzte sakandarrak, "egun oso polita" delako.

Igandean bizikleta hartu eta Sakanako XXI. Bizikleta Egunean aritzeko gonbitea egin du Mank-ek. Irurtzundik hasi eta Lizarragan despedituko da ibilbidea (36 km)

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Burunda eta Aralar Txirrindularitza Kluben laguntzarekin, eta hainbat babeslerekin -Irurtzun eta Ergoienako Udalak eta Nestlé- XXI. Sakanako Bizikleta Eguna antolatu dute igandean, hilak 28, "Sakana bizikletaz ezagutzen" lelopean. Eguraldi ona iragarri dute eta partehartze handia espero dute.

Helburuak eskualdean txirrindularitza bulkatzea, goiz polita pasatzea, gure herriak, kaleak, zubiak, ermitak, landaretza eta basoak ezagutzea eta Sakanako herri ezberdinetako eta adin ezberdinetako jendearen arteko harremanak bulkatzea dira.

Arakildik Ergoienara

Irurtzundik abiatuko da martxa, goizeko 9:00etan, eta Izurdiagara eta Errotzera jo ondoren, Urritzolan sartu eta Etxarrenera helduko dira txirrindulariak. Segituan Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri eta Ihabar gurutzatuko dituzte, Irañetan atseden hartzeko. Bokata norberak eraman beharko du eta antolakuntzak freskagarria eskainiko du. Ondotik, atzera ere txirrindula hartu eta Zamartzeko bidetik Uharte Arakilera helduko dira, Arruazu eta Lakuntza pasa ondoren Arbizutik Unanura aldeko bidea hartzeko. Unanu eta Dorrao gainditu ondoren, Lizarragan despedituko da Sakanako Bizikleta Eguna. Bukaeran, partaide guztiendako izozkia izanen da.

Edozeinek egin dezake

Aurten 36 km izanen ditu ibilbideak, aurreko urteetakoak baino aldapatsuagoa. "Familian edo lagun artean joateko aproposa da. Aurten mantsoago joango gara, baina ibilbidea egingarria da. Gainera, aukera ugari eskaintzen ditu Bizikleta Egunak, norberak nahi duen puntuan utzi baitezake ibilbidea eta nahi duenean gehitu daiteke. Hori bai, segurtasuna bermatzeko txirrindulariak antolakuntzak zehaztutako ibilbidetik ez dira atera beharko" adierazi dute antolatzaileek.

Autobus zerbitzurako izena ematea itxita

Parte hartzea librea da eta doan, baina antolakuntzak autobus zerbitzua jartzen du txirrindulariak euren herrietan jaso eta Irurtzunera eramateko -goizeko 7:45ean aterako da Ziorditik-, eta proba bukatuta, atzera ere txirrindulariak etxera eramateko. Bizikletak eramateko kamioia ere egoten da. Zerbitzu hauek erabiltzeko aurretik izena eman beharra zegoen Mank-en.

Bizikleta puntuan jarri

Txirrindula puntuan jartzea eskatu dute antolatzaileek. Izan ere, igandean mekanikaria egonen da, baina egunean bertan gertatutako zulaketa edo matxurak konpontzeko. Guztia ongi ateratzeko 15-20 pertsona lanean ariko dira, Burunda eta Aralar txirrindularitza klubetakoak. Ibilbidea DYAk zainduko du eta uneoro kamioia eta ibilgailuak joanen dira atzean, norbaitek proba eta bizikleta utzi nahi badu.

Inter Movistarren kontra ezin da akatsik egin

Magna Nafarroa Xotak 3-1 galdu zuen Inter Movistarren kontra

Aurreko asteburuko jardunalditik apenas errekuperatu gabe – Magna Nafarroa Xotak Aspil-Vidalen kontrako derbya galdu zuen Tuteran, 3-2– , asteartean, Magnak izarrez betetako Inter Movistar taldearen kontra jokatu zuen Madrilen. Nahiz eta ongi aritu, ezin izan zuten Inter Movistar garaitu.

Partida intentsitate handikoa izan zen. Berehala Interreko Ricardinhok gola sartu zuen. Irurtzundarrak saiatu ziren, baina ezin, eta atsedenaldira joan baino lehen Ricardinhok Interren bigarren gola sartu zuen.

Ondoren etengabe erasotu zuten irurtzundarrek, baina ez zuten asmatu. Aldiz, Carlos Ortizek madrildarren hirugarren gola sartu zuen. Partida bukatzeko 6 minutu falta zirenean, Eseverrik 3-1ekoa sartu zuen. Tamalez, irurtzundarrek ez zuten gehiagorako astirik izan.

Arregik azaldu zuenez, "gure akatsek erabaki dute, gure akatsen ondorioz iritsi baitira Interren 3 golak. Talde indartsu hauekin bizpahiru akats egiten badituzu, eurendako nahikoa da partida bereganatzeko".

MONTESINOS JUMILLAREN KONTRA BURUA ALTXATZERA

Bi partida jarraian galdu ondoren, burua altxatzea, besterik ez zaio geratzen Magnari. Gaur, ostirala, Montesinos Jumilla hartuko du Magnak Anaitasuna pabilioian, 20:30ean.

Beltzaren eta Resanoren aukera

Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelkeltako bigarren kanporaketa jokatuko dute igandean Aizarnazabalen

Igandean, irailaren 28an, Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketaren bigarren kanporaketa hartuko du Aizarnazabalek, 18:00etan. 8 aizkolari lehiatuko dira: Aritz Irazabal, Beñat Lekue, Xabier Dorronsoro, Jokin Alkizalete, Mieltxo Mindegia, Iker Vicente eta Goizeder Beltza eta Iban Resano sakandarrak. Lau kanaerdiko erdibitu beharko dituzte eta lehendabiziko hirurak final handirako sailkatuko dira.

Lehen finalerdian Asier Pellejerok, Eneko Saralegik eta Aitor Urteagak lortu zuten finalerako sailkatzea. Ea igandean Beltza etxarriarrak eta Resano dorrobarrak lan txukuna egiten duten.

Automobilismoa

Urbasako igoerarako atzerakontua

Lastailaren 4an jokatuko da, larunbatarekin. 14:00etan entrenamendua eginen da eta segidan probako bi txandak

Sakana Motorsport taldeak, Olaztiko Udalaren, Maisunea gaztetxearen eta Bierrik fundazioaren laguntzarekin 34. Urbasako igoera antolatu du urriaren 4rako. Urbasakoa automobilismo egutegian eta bereziki igoeren egutegian proba mitikoa da eta pilotu eta zale ugari espero dira Olaztin eta Urbasan. Proba Nafarroako Mendi Txapelketarako baliagarria izango da.

Urbasako igoera ezinbesteko proba da automobilismo zaleendako.

Izena ematea zabalik

Aste eskas bat falta da pilotuak Urbasan gora ikusteko. Proban izena ematea zabalik dago, lastailaren 2ra arte (www.fenauto.com). Pilotuek 5,7 kilometro osatu beharko dituzte, Olaztin hasita -38,050 kilometro puntua- Urbasako portu gaineraino -32,220 kilometro puntua-. Errepidea goizeko 9:00etan itxiko da. Autoen egiaztapenak 9:00etatik 12:30era eginen dira eta entrenamendua 14:00etan hasiko da. Ondoren bi txanda jokatuko dira.

Kiroldegia

Igeriketa eta soinketa ez gaituendako

Urriaren 6tik maiatzaren 7ra bitartean gauzatuko da ikastaroa, dohainik

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Askalatsen laguntzarekin, pertsona ez gaituendako igeriketa eta soinketa ikastaroa eskainiko du. Ikastaroa lastailaren 6tik maiatzaren 7ra bitartean izanen da, astelehenetan eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara. Bi aukera daude: igeriketara eta soinketara etortzea, biak, edo soilik soinketara etortzea.

Izena ematea dohainik da, eta Mankeko Kirol Zerbitzura jo behar da (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com).

Atletismoa

Moreno eta Beunza nagusi Ergoienan

Guztira 69 korrikalari lehiatu ziren Ergoienako Biran, 22 kategoria txikietan eta 47 proba nagusian

Lizarraga izan zen aurtengo Ergoienako Birako abiapuntu eta helmuga. Eguraldi ona lagun hasieran kategoria txikikoen lasterketak jokatu ziren. Guztira 22 neska-mutiko lehiatu ziren, 19 txikienen mailan (Amets Satrustegi eta Uxue Berastegi nagusitu ziren), 7 maila ertainean (Jon Aierbe eta Leire Mendinueta garaileak) eta 6 handienen mailan (Fermin Azkargorta eta Iratze Urrestarazu garaileak).

Ondoren helduen kategoriako proba jokatu zen. Parte hartu zuten 47 helduek 8,5 km-ko lasterketa gorabeheratsua zuten aurrez aurre. Lizarragatik aterata, Unanu eta Dorraora heldu ziren korrikalariak, buelta hartu eta Lizarragako helmugara iristeko. Aldapaz betetako proba da Ergoienakoa, eta gogortasun horren isla, korrikalariak banaka-banaka iritsi ziren, lehertuta.

Guztien buru Javi Moreno altsasuarra izan zen (33:45). Morenok bere hirugarren garaipena lortu zuen jarraian Ergoienan, eta kontentu zegoen. Bigarrena Sergio Garcia de Eulate altsasuarra izan zen (34:22). Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarra izan zen lehena (40:36), Angelines Lizarragaren (42:36) aurretik. Lehen beteranoak Angel Barandalla (40:14) eta Angelines Lizarraga izan ziren. Lehen ergoendarra Aitor Mozo (44:53) izan zen, eta Jose Mari Mercero unanuarrak (49:20) aipamen berezia jaso zuen, horrenbeste urtez Ergoienako proban parte hartu izanagatik.



Javi Moreno, saria jasotzen. Ondoren Izaskun Beunza, helmugan.

Gogorra eta polita

"Proba gogorra da baina oso polita, xarma berezia du. Ibilbidea ezagutzea funtsezkoa da, indarrak gordetzeko eta ongi erregulatzeko" adierazi zuen Javi Morenok helmugan.

Ohiko trofeo, oroigarri eta sariez aparte, proban parte hartu zuten korrikalari guztien artean 23 produktu lote zozketatu ziren eta lehen ergoendarrak, Aitor Mozok, Zugain jatetxean bi pertsonarendako afaria jaso zuen opari. Bukaeran, auzate ederraz gozatzeko aukera izan zuten bildutako guztiek Lizarragako Azi Iturri elkartean.

5. Onddo Lasterketa

Lastailaren 18an, Altsasun. Txikienak 11:00etan eta helduenak 12:00etan. Izena ematea: www.dantzalekusakana.com.

Ergoienako Bira. Proba nagusiko sailkapena:

1.	Javier Moreno	33:45
2.	Sergio Garcia	34:22
3.	Axier Aranburu	34:30
4.	Fernando Villar	34:48
5.	Francisco Gomez	35:13
6.	Roberto Uztarroz	35:18
7.	Martinez	35:50
8.	Iñaki Albaro	36:16
9.	Andoni Azanza	36:42
10.	Karlos Ballejo	36:51
11.	Xabier Angos	37:03
12.	Josean Sanz	37:07
13.	Iban Gonzalez	37:43
14.	Iñigo Maiza	38:43
15.	Jon Unsuain	39:00
16.	Luis Flores	39:10
17.	Borja Gonzalez	40:13
18.	Angel Barandalla	40:14
19.	Juantxo Azurmendi	40:25
20.	Izaskun Beunza	40:36
21.	Santi Agirre	40:48
22.	Patxi Arbizu	40:53
23.	Javier Goldaraz	41:41
24.	Iñigo Gamarra	41:50
25.	Angelines Lizarraga	42:36
26.	Aingeru Azazeta	43:17
27.	Juanjo Gomez	43:30
28.	Maite Ares	43:45
29.	Aitor Mozo	44:53
30.	Mikel Razkin	45:15
31.	Maite Zabaleta	45:38
32.	Javier Maiza	45:39
33.	Juan Arrondo	45:56
34.	Luis Mari Juaristi	46:12
35.	Gotzon Auzmendi	46:40
36.	Koldo Asurmendi	49:20
37.	Jose Mari Mercero	49:20
38.	Ixa San Martin	51:24
39.	Josune Senar	52:01
40.	Maite Martinez	53:02
41.	Rosa Orofino	53:40
42.	Mattin Juanikorena	53:50
43.	Edurne Rivera	54:07
44.	Ismael L. De Goikoetxea	55:04
45.	Araceli Gracia	55:55
46.	Pili Abad	57:01
47.	Carlos Debora	57:02

Oharra: Txikien sailkapena: www.guaixe.net

Irristaketa

Iruñean saritutakoak. UTZITAKOA

Irristaketa denboraldiaren buelta

Irristalari sakandarrek maila polita eman dute Iruñeko Extremadurako Etxea Trofeoan

Udako oporraldiaren ondoren irristaketa denboraldiari berrekin diote irristalariek. Larunbatean Extremadurako Etxea Trofeoa jokatu zen Iruñean, eta bertan Sakana Irristaketa Taldeko irristalariak aritu ziren. Lan ona egin zuten. Tartean Eukene Vazquez hirugarrena sailkatu zen, Anne Lapuente bigarrena eta Ekain Imazek garaipena lortu zuen.

Pilota

Joanes Bakaikoa eta Mariezkurrena Lodosako Torneoko txapeldunordeak

Ostiralean Lodosako Virgen de las Angustias Torneoko finalak jokatu ziren. Promesen mailan Erreka klubeko Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Irurtzun klubeko Mariezkurrenak galdu egin zuten, 22-11, Laso (Huarte) eta Olaizola (Bortziriak) pilotarien kontra.

Onsalo eta Lasaren kontra ariko dira Andueza eta Gorriti Uharten

Uharte Arakilen San Migel festak ospatuko dituzte asteburuan. Larunbatean afizionatuen mailako jaialdi polita antolatu dute, 19:00etan frontoi zaharrean jokatuko dena. Andueza eta Gorriti Onsalo eta Lasaren kontra ariko dira.

Zabaleta eta Zubieta Logroñoko San Mateotan

Abel Barriola lesionatuaren tokia hartu zuen atzo Jose Javier Zabaleta etxarrendarrak Logroñoko San Mateotako Binakako Torneoan. Xalarekin batera, Olaizola eta Beroiz irabaztetik zetozen Irujo eta Aitor Zubieta izan zituzten aurkari. Emaitzen faltan, Irujok eta Zubietak igandeko finalerako sailkatzeko aukera gehiago zituzten, 17 tanto egitearekin nahikoa baitzuten. Aldiz, Xalak eta Zabaletak aurrera egiteko 4 tantotan utzi behar zituzten Irujo-Zubieta. Bestalde, Logroñoko Domus Rei gazteen desafioko finala jokatuko dute larunbatean Zabaletak eta Estebanek, Artolaren eta Aretxabaletaren kontra.

Pilota

Ollo eta Goñi txapeldunak

Mikel Ollok eta Xabier Goñik 12-8 irabazi zieten Marian Morenori eta Santos Iragiri Binakako Botxa Txapelketako finalean

Ostiralean jokatu zen Binakako Botxa Txapelketako final handia, Irurtzungo Iratxo elkarteko botxategian. Lehenik eta behin, 3. eta 4. postuak zehazteko partida jokatu zen. Pakita Arruabarrenak eta Alizia Navarrok 12-7 irabazi zieten Asensiori eta Manolori. Eta segidan final handiaren txanda izan zen. Mikel Ollo eta Xabier Goñi botxetan finago ibili ziren eta 12-8 irabazi zieten Marian Morenori eta Santos Iragiri, txapelketa irabaziz. Bukaeran sari ematea izan zen.

Asteburuan elkarteen arteko txapelketa Irurtzunen

Asteburu honetan Antsoain, Berriozar, Txantrea, Natacion eta Irurtzungo elkarteen arteko Botxa Txapelketa jokatuko da Irurtzungo Iratxo elkartean. Berriozarrek 3 talde aurkeztuko ditu, Txantreak 2, Antsoainek beste 2, Irurtzunek 4 eta Natacionek 1. Partidak larunbat arratsaldean, 17:00etatik aurrera eta igandean jokatuko dira. Igande goizean final laurdenak eta arratsaldean final aurrekoak eta final handia jokatuko dira. Iganderako ere bazkaria antolatu dute Iratxon, eta finalaren ondoren sari ematea izanen da.

Iratxo Botxa Binakako Txapelketako finalistak, sariekin. UTZITAKOA

Pilota

Medina eta Ongay, buruz buruko finalean. Urrea Ongayrendako izan zen.

Ongayk urrezko domina ekarri du Mexikotik

Buruz buruko finalean 10-9 eta 10-7 irabazi zion Fernando "Momo" Medina mexikarrari

Euskal Pilotako Mundiala jokatu da Mexikon. Igandean Pilota Mundialetako 36 metroko frontoiko esku pilotako buruz buruko finalean Alberto Ongay satrustegiarrak urrezko domina lortu zuen, Mexikako Fernando "Momo" Medinari 10-9 eta 10-7 irabazi eta gero. Markagailuak erakusten duen bezala, finala oso estua izan zen. Gainera, partida erabakigarria zen, Mundialeko titulu absolutua jokoan zegoelako.

Mexiko txapeldun

Azken unera arte txapeldun absolutua nor izango zen zalantzan egon zen, baina azkenean Mexikok irabazi du Mundiala, 11 domina lortuta, horietatik 6 urrezko, 2 zilarrezko eta 3 brontzezko. Espainiako selekzioak domina gehiago lortu ditu, 13, baina horietatik 4 urrezkoak izan dira, 4 zilarrezkoak eta 5 brontzezkoak. Urre gehiago izateak eman dio txapelketa Mexikori. Frantzia sailkatu da hirugarren, Argentina laugarren, Kuba bosgarren eta Uruguay seigarren.

Mendi lasterketak

Olatzagutia-Urbasaren txanda

Bihar jokatuko da, 10:00etan, VIII. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa 304 korrikalarik hartuko dute parte

Olaztiko San Migel festekin batera, bihar, larunbatean, VIII. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa jokatuko da. Proba Olaztiko Sutegi kirol elkarteak antolatu du, Olaztiko Udalaren eta Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Federazioen laguntzarekin, eta Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Euskal Koparako baliagarria da.

Partaide gehiago

304 korrikalari daude izena emanda, aurreko urtean baino gehiago. 2013an 240 korrikalarik parte hartu zuten eta Ionut Zincak segundo batean hobetu zuen Olatzagutia-Urbasako errekorra (1:45:58). Emakumezkoetan Alicia Olazabal izan zen lehena (2:20:04). Eta lehiatu ziren 35 sakandarren artean azkarrena Jose Luis Beraza uhartearra izan zen (1:59:47), helmugan 8.a.

Sariak

Sari-banaketa ekitaldia helmugan izanen da 13:30 aldera. Maila absolutuan, neska eta mutil onenek, hurrenez hurren, 350 euro, 175 euro, 125 euro eta 75 euro jasoko dituzte. Horretaz aparte, irabazleek txapela jantziko dute eta lehen hirurek trofeoa jasoko dute. Lehen beteranoek 75 euroko saria izanen dute. Promesa, junior eta kadete onenek garaikurra jasoko dute. Bestalde, proba bukatzen duten parte-hartzaile guztiek opari poltsa jasoko dute. Gainera, korrikalari guztien artean Urbasako 10 gazta banatuko dira.

Helduek 23,2 km, kadeteek 15,6 km

Olaztiko mendi lasterketa (23,2 km, 1.367 m desnibel +) bihar, goizeko 10:00etan aterako da Clinker paretik (528 m). Zuzenean Urbasako ipar gailurreriako punturik altuenera joko dute, Tontorraundira (1.157 m). Mendi gainean, bira gorabeheratsua eginen dute, ekialdera Altsasuko portugainetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargagainera heltzeko (1.153m). Ondoren Gainsoilera (1.068 m) eta Ordotzeko putzuraino. Handik jaisten hasiko dira, Urbasako portugainera, eta gainbehera zorrotzetik Olaztiraino iritsiko dira. Ibilbidean 4 denbora kontrol puntu izanen dira, edaria eta janaria hartzeko guneak eta osasun laguntza ere izanen dituzte puntu estrategikoetan. Bestalde, kadeteendako 15,6 km-ko ibilbidea antolatu du.

www.olatzagutia-urbasa.net

Probaren inguruko informazio guztia, izen emateak, mapak eta beste.

Etxarriko Mendira Joan-Etorrirako izena ematea zabalik

Etxarri Aranazko 39. Mendira Joan-Etorria lastailaren 5ean jokatuko da (10 km eta 572 metroko desnibel pilatua). Izena ematea zabalik dago www.mendizmendi.com web gunean (10 euro). Informazio gehiagorako: mendirajoanetorria.16mb.com.

Nafarroako Mendi Kluben eguna ate joka

Lastailaren 5ean, Altsasun: Altsasuko Dantzaleku Sakanak eta Altsasuko Mendigoizaleak antolatuko dute. Bi mendi ibilbide antolatu dituzte mendira, oinez egitekoak, 21 km-koa eta 14 km-koa, familiartean egiteko. Ondoren bazkaria eta musika izango dira.

Osak km bertikaleko errekorra apurtu zuen

Errekor berria ezarri zuen (42:42). Emakumezkoetan Laura Sola gailendu zen (51:17). Aritz Munarriz izan zen lehen sakandarra, 5.a (46:00).

Aritz Munarriz Beriaingo malda ikusgarrietan gora. UTZITAKOA

Sakandarrak Uharte Arakil-Beriain Km bertikalean:

1.	Aitor Osa	40:21
5.	Aritz Munarriz (Etx)	46:00
7.	Jose Luis Beraza (Uhar)	46:29
12.	Mikel Rubio (Irur)	47:50
19.	Beñat Katarain (Lak)	50:24
21.	Mikel Satrustegi (Arru)	50:34
22.	Gorka Santesteban (Etxarren)	50:49
26.	Mikel Berastegi (Arb)	51:05
28.	Fidel Jimenez (Etx)	51:11
36.	Francisco Codon (Irur)	51:56
42.	Jose Javier Maiza (Etx)	52:48
43.	Aritz Ganboa (Arru)	52:52
45.	Alatz Agirre (Arb)	52:59
47.	Julen Paniagua (Urd)	53:24
48.	Mikel Sasiain (Etx)	53:26
49.	Aitor Hernaiz (Lak)	53:32
51.	Adur Senar (Lak)	53:51
52.	Angel Arrieta (Uhar)	53:55
53.	Patxi Cano (Alts)	54:04
66.	Fran Araña (Arb)	55:08
68.	Eneko Otsagabia (Lak)	55:37
79.	Iker Flores (Alts)	56:40
89.	Mikel Iriarte (Arb)	57:11
96.	Patxi Albeniz (Uhar)	57:37
101.	Juanjo Armendariz (Irañ)	58:34
102.	Ipe Lizarraga (Irur)	58:38
109.	Iñaki Alvaro (Alts)	59:21
122.	David Gonzalo (Uhar)	1:01:05
126.	Jose Javier Beregaña (Uhar)	1:01:37
138.	Asier Agirre (Zior)	1:02:30
142.	Iban Verdugo (Etx)	1:03:19
149.	Mikel Intxauspe (Irañ)	1:04:23
151.	Txomin Razkin (Lak)	1:04:26
152.	Alain Gabirondo (Iturm)	1:04:29
153.	Floren Beraza (Irañ)	1:04:42
159.	Erkuden San Martin (Etx)	1:05:44
160.	Kepa Paniagua (Urd)	1:05:59
169.	Jose Ignazio Otsoa (Zior)	1:07:43
188.	Jorge Martinez (Alts)	1:16:53

Uharte Arakil Beriain Km Bertikala beti izaten da ikusgarria. Baina aurtengoa, akaso, are ikusgarriagoa izan zen. Eguraldia lagun, jende asko bildu zen Beriainen korrikalariak animatzera, eta giro bikaina izan zen. Proban lehenengo aldiz estreinatu zen Aitor Osa txirrindulari ohiak sekulako ikuskizuna eskaini zuen. Aurreko urtean Ionut Zincak ezarritako errekorra (42:42) bi minutu pasa hobetu zuen Osak, erlojua 40:21ean geratuz. Harrigarria. Emakumezkoetan Uztarrotzeko Laura Sola izan zen azkarrena (51:17). Ez zuen aurreko urtean Leire Agirrezabalak lortutako errekorra gainditu (49:47).

Aralar Mendi klubak antolatutako proban izena eman zuten 199 korrikalariak banaka-banaka atera ziren Uharte Arakilgo frontoitik. Proba kronometratua zen, distantzia laburrekoa (5 km) baina gogortasun handikoa, 1.023 metroko desnibela zuen eta sekulako maldak, %70ekoak tartean. Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako baliagarria zen lasterketa.

Igoera ordu bat baino gutxiagoan egitea handia da, baina 199 korrikalarietatik 113k jaitsi zuten denbora hori, korrikalarien maila handiaren berri emanez. Osak maldetan gora hegan egin zuen. "Proba gogorra da, esplosiboa, baina oso polita. Errepikatzekoa" adierazi zuen irabazleak. Iritzi berekoa zen Laura Sola. "Oso gogorra da, baina gora iristean eta jendearen tartean gora eginez, haien animuak entzutean... oiloipurdia jartzen zaizu" adierazi zuen.

Sakandarrak bikain

38 sakandar animatu ziren, kopuru handia. Azkarrena Aritz Munarriz izan zen (5.a, 46:00). 29 segundo beranduago sailkatu zen Jose Luis Beraza, 7. postuan, lehen uhartearra. Emakumezkoetan sakandar bakarra aritu zen, Erkuden San Martin (1:05:44). Bukaeran, Nerea Cenoz nutrizionistak prestatutako hornidurarekin berreskuratu zituzten indarrak.

www.uhartearakil-beriain.com

Sailkapena, argazkia, eta probako informazio guztia.

Nordin Pirineun

Asteburuan Ultra Pirineu ultra trail ikusgarria jokatu da Bagàn (10,3 km, 6.324 m desnibel +). Luis Alberto Hernando izan zen garailea (11:15:14). Nordin Jdi Baba lakuntzarrak 22 ordu t´erdi eman zituen korrikan (22:29:50) eta proba 427. postuan despeditu zuen. Pozik zegoen Nordin proba bukatu izanagatik. Irteera hartu zuten 1.043 korrikalarietatik 400 pasa erretiratu egin ziren, tartean Sergio Goñi olaztiarra.

Futbola

Lagun Artea: Kategoria Autonomikora igotzea da erronka

3. mailatik preferentera jaitsi eta gero, lehendabiziko 6 postuetan sailkatu nahi du Lakuntzako taldeak, hurrengo denboraldian sortuko den Kategoria Autonomiko berrira igotzeko

Aldaketa urtea bizi du Lagun Arteak. 3. mailatik jaitsi ziren lakuntzarrak, oso gutxigatik, eta aurten preferente mailan mustu dira. Gainera, denboraldi arraroa izango da hau, hurrengo denboraldian 3. mailaren eta preferente mailaren artean kategoria berri bat sortuko baita, Maila Autonomikoa, eta horrek aurtengo denboraldia guztiz baldintzatuko du. Helburua, zalantzarik gabe, preferenteko lehen 6 postuetan sailkatzea izango da, Maila Autonomikora igotzeko.

"Aldaketarekin, 3. mailara igotzea ia ezinezkoa izango dugu herri txikietako taldeek. Erabaki honek klub handiei egiten diete mesede, harrobi handia dutenei. Pentsatzekoa da Maila Autonomikora Erriberako talde asko igoko direla, Erriberako herriak handiak baitira, talde indartsuekin. Maila horretan ez da diru laguntzarik ematen eta herri txikiak igotzen bagara, sekulako gastuak izango ditugu desplazamenduetan. Futbola ia debekagarria bilakatzen ari da, gastu izugarriekin, ia jasanezinak diren gastuak" adierazi digu Lagun Arteako idazkari Jesus Mari Goikoetxeak.

Lagun Artea 2014-2015

Atezainak: Lucas Pascual, Daniel Garcia eta Jon Goikoetxea. **Atzelariak:** Adrian Betelu, Eneko Cruz, Aitor Egurza, Jon Ollo, Iñigo Palomo, Josu Palomo eta Iker Diaz. **Erdilariak:** Jonathan Medina, Josu Arrosagarai, Ibon Arregi, Ander Unanua, Christian Leon, Ierai Perez de Villarreal eta Imanol Martinez. **Aurrelariak:** Unai Bakaikoa, Arkaitz Gasco, Joseba Montoya, Jonathan Davila, Alejandro Zabala, Xabier Burillo eta Ruben Mendieta. **Entrenatzailea:** Jose Antonio Claver. **2. entrenatzailea:** Patxi Beraza. **Atezainen prestatzailea:** Gorka Olaiz. **Fisioterapeuta:** Asier Urkia. **Delegatuak:** Diego Cruz, Oscar Maiza eta Jesus Mari Zabarte.

Talde oso gaztea, bertakoa

Hala ere, taldearen helburua igotzea izango da. Aurten entrenatzaile berria izango du Lagun Arteak, aurretik ere Lakuntzan izan zen Jose Antonio Claver altsasuarra, Altsasu entrenatzetik datorrena. Talde ia berria du bere aginduetara, iazko taldetik 15 baja baitaude. "Iraultza garaia bizi dugu. 15 jokalarien baja izan dugu, eta, bestetik, jubenil mailako taldetik 5 jokalari igo dira eta erregionaleko Lagun Artea B-tik 7. Momentuz 24 jokalari ditugu taldean eta adinaren batez bestekoa 21,7 urtekoa da. Bertako jokalari gazteen aldeko apustu garbia egin dugu, eta badakigu zaila izango dugula, baina saiatuko gara" nabarmendu du Goikoetxeak.

"Gurea talde polita da, nahiko konpentsatua. Defentsan akaso pixkat justu gaude, lesionatutako jokalariak baititugu, baina goian klasifikatzeko aukerak izan, baditugu" dio Goikoetxeak. Talde faboritoak aurreko denboraldian goian egon zirenak ikusten ditu idazkariak: Agoitz, Mendi, Lagunak, Zirauki… "Egia esan, maila honetara iritsi berriak gara. Ikusiko dugu nola doazen gauzak" gaineratu du.

Hala ere, aurten sufritzea tokatuko zaiela argi du Goikoetxeak. Unai Bakaikoa, Medina, Gasco, Montoya, Davila eta Palomo dira euren esperientzia eskainiko duten jokalariak, eta haiengatik ikasi beharko dute berriek. "Jokalariak giro onean dabiltza entrenatzen eta gogoz gaude, baina talde oso gaztea gara eta gure helburua jokalariak trebatu daitezela da, egin daitezela. Hemengo jendearen alde egin dugu apustua. Aurreko astean, Oibarren, beraiek gu baino altuagoak, nagusiagoak eta esperientzia handiagokoak ziren, baina gure mutilek gogo handia dute eta egingo dira" azpimarratu du.

Lehen jardunaldian 5-4 irabazi zioten Amayari eta larunbatean 3-2 galdu zuten Aibaresen kontra. Sailkapenean Baztan da liderra (6 puntu) eta Lagun Artea 6.a (3 puntu). Ea Ziraukiren kontra zer egiten duten (larunbatean, 17:00etan, Ziraukin).

Lagun Artea Futbol Kluba

Erregionaleko taldeaz gain, Lagun Arteak haurren mailako 2 talde eta Futbol 8an ibiliko diren kimuen mailako 4 talde –akaso 5 izan daitezke– ditu. Aurreko denboraldiko jubenilen taldea desagertu da, jubenil gehienak erregional mailako taldera pasa direlako. Eta gauza bera erregional mailan ibili zen Lagun Artea B taldearekin.

Gastuak murrizteko lan handia egiten ari dira. "Aurreko denboraldian 60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua genuen eta aurten 35.000-40.000 euroren artean ibiliko gara. Hala ere, Lakuntza bezalako herri txiki batendako diru asko da hori. Jokalarien seguruak, desplazamenduak, partida bakoitzagatik ordaindu beharrekoa, ohiko gastuak... Futbola ia ezinezkoa bilakatzen ari da herri txikietarako" dio idazkariak.

Bestalde, Lagun Arteako juntan ez dago aldaketa nabarmenik. Carlos Ruiz de Erentxunek jarraitzen du presidente, Javier Hernandezek presidenteorde, Jesus Mari Goikoetxeak eta Migel Angel Aretak idazkari, Jose Mari Lanzek diruzain eta Javier Anduezak, Xabi Beteluk, Juan Ignazio Mendietak, Diego Cruzek eta Jesus Mari Zabartek bokal. Oscar Maiza sartu da juntan, bokal lanetan.

Erregionalean Etxarri lider berria

Etxarrik 6-0 irabazi zion Salesianosi eta Altsasuk 5-0 Berriozarri: Ez ahazteko moduko jardunaldia bizi zuten Etxarri Aranatzek eta Altsasuk asteburuan, gol festa ederra. Etxarri Aranatzek 6-0 hartu zuen menpean Salesianos taldea. Etxarri jaun eta jabe izan zen eta Urrestarazuk, Xabatek (2), Urkiak (2) eta Ruedak sartu zituzten golak. Dantzalekun ere jaun eta jabe izan zen Altsasu, eta zortea alde, guztia ongi atera zitzaion. David, Aitor (2), Dario (2) izan ziren golegileak.

Etxarri da lider berria (7 puntu), eta Altsasu 4.a da (6 puntu). Asteburuan Etxarrik San Jorge izango du arerio (larunbatean, 17:15ean Iruñean) eta Altsasuk Ardoi (igandean, 12:30ean, Zizurren).





TARIMA BELTZA ERREPIDEAN: Altsasuko antzerki taldeak Nunca fuimos heroes antzezlanaren emanaldiak eskaintzen segitzen du. Hurrengo bi asteburutan emanaldi bana du. Igandean Atarrabiako antzerki amateur zikloaren barruan ariko da. Lastailaren 4an, Faltzesen ariko da.

kultura >>

Bi herrialde batera

Ostiralean XVI. Extremadurako kultur jardunaldien pregoia Jon Maia Soriak irakurri zuen, bere familia ordezkatuz. Kulturen fusioa sustatzeagatik eskertu zuen La Encina. Bertsoeskolan ari diren Aitziber Grados, Amets Artieda, Idoia Granizo, Haritz Goikoetxea eta Ekain Alegre igo ziren eszenatokira, bertsopaperak kantatzera. Josema Leitzak entzuleei bertsolari gazteek landutako gaien berri eman zien. Extremadura eta Altsasuren aipamenak egin zituzten. 150 urte bete dira aurten Jose Iriarte Zufiaurre, Ttotto, bertsolari altsasuarra jaio zela. Haren iturriak segida du.

La Cigarraren kontzertua, kidearen omenez

Juanjo Amezgarai omentzeko kontzertua eginen du igandean, 19:15ean, Olatzagutiko Erburua kiroldegian

2009ko irailaren 11n, 64 urte zituela, hil zen Juanjo Amezgarai, Malamartxa ezizenez ezaguna. La Cigarra txarangako klarinete-jolea zen; gaitarekin hasi zena gerora. Txarangako kideek ez dute kidea ahaztu eta haren heriotzaren urteurrenean omentzea erabaki dute. San Migel festak baliatuko dituzte horretarako.

Domekako emanaldian 10 pieza joko ditu La Cigarrak. Haietatik hiru izanen dira Amezgaraik sortutakoak. Omendutakoak sorkuntzarako emaria bazuen ere, lan gehiago egin zuen piezak moldatzen. Eta haiekin osatuko du La Cigarrak errepertorioa. Salbuespena Amezgarairen iloba Alejandro San Romanek sortutako pieza baten interpretazioa izanen da.

La Cigarra

Amezgarai, klarinetea eskutan.

Olatzagutiko txaranga duela 32 bat urte sortu zen eta sortzaileen artean zegoen Amezgarai. Gaur egun 16 musikarik osatzen dute txaranga (4 saxofoi, 2 saxofoi tenor, 3 tronpeta, tronboi 1, bonbo 1, txindatak, klarinete txikia eta 2 klarinete). Ostiralero jotzen dute eta soilik euren herrian (inauteriak, festak eta Santa Cecilia). Etziko emanaldian Sergio Gastaminzaren (baxua) eta haren ilobaren (txirula) laguntza izanen dute.

bazterretik

Andoni Igoa

Frank Lloyd Wright

XX. mendeko arkitekturako maisu handienetako bati omenaldi bat egitea bururatu zait oraingoan. Fran Lloyd Wright izeneko arkitekto estatubatuarra alegia. Nahiz eta 1867. urtean jaio, bere lanek 1900go hamarkadan ikusi zuten argia, eta izugarrizko eragina izan dute gaur eguneko arkitekturan.

Wrightek hasieran diseinatu zituen etxebizitzei berezitasun batzuk eman zizkien. Etxe hauek lerro horizontaletan, hegal handietan... oinarrituta daude. Etxebizitza hauek "casas de la pradera" izena hartu zuten, eta estilo honetan gehien nabarmendu zena 1909. urtean eraikitako Robie etxea da. Etxe hau XX. mendeko eraikinik adierazgarrienetako bat da eta Estatu Batuetako hito historiko nazionala bilakatu zen.

New Yorkeko Guggenheim museoa da gustukoa dudan Wrighten beste eraikin bat. Hau hainbat pelikulatan ateratako museoa da. Adibidez "men in black" etortzen zait burura, non Will Smithek estralurtar bat jarraitzen duen korrika museoko arrapaletan zehar. Eraikin honen berezitasuna esposizio gelarik ez dagoela da. Azken solairura igo eta espirala den arrapala batetik jaisten da esposizio ibilbidea.

Gogokoenetakoa dudan eraikin batekin bukatu nahiko nuke. Hau Wrightek diseinatu zuen Kaufman etxea edo ezagunago den moduan, ur jauziko etxebizitza da. Bere maisulana dela esan genezake. Kaufman jaunak etxe honen enkargua egin zionean ez zen bere momenturik hoberena. Enkargua egin eta urte batera emaitzaren bat ikustera gerturatu zitzaion bezeroa,. Arkitektoak aldiz, ez zeukan ezer marrazturik. Orduan, jenioak momentuan bertan, urte osoan buruan zituen plano batzuk marraztu zizkion Kaufmani. Eraikina ur jauzi baten gainean kokatu zuen, zera esanez: "Zuek ur jauziarekin batera bizitzea nahi dut eta ez bakarrik bera begiratu ahal izatea, baizik eta zuen bizitzaren zati bilakatzea nahi dut".



Nonerabili

IORTIA HORTZ KLINIKA
ALTSASU
%10ko garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA
ALTSASU
%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA
IRURTZUN
%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA
UHARTE ARAKIL
50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

MARTIARENA GAZTANDEGIA
UHARTE ARAKIL
40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

BERGARA CENTRO OPTICO
AGURAIN
Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK
ARBIZU
%10 eko deskontua mantenu piezetan, %5 eko deskontua gurpiletan.

AMAYA TABERNA
IRURTZUN
Menuarekin txupitoa edo kafea doan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA
ETXARRI ARANATZ
30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 63%	euria: 63%	euria: 45%	euria: 28%
Min: 9 Max: 20	Min: 9 Max: 24	Min: 14 Max: 22	Min: 14 Max: 20	Min: 11 Max: 20	Min: 11 Max: 19	Min: 11 Max: 20

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	28	8	8.9
Etxarri A.	27.2	6.8	13.7
Altsasu	26.5	9	28.8
Aralar	18.7	5.2	13.1
Urbasa	22	5	20.9

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
1	8	15	23

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

IRAILEKO SARIAK:

1- Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea.
2-Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.
3- Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.
4- Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.

>>11 galdera

Naira, Josu eta Mikel

Mila Kolore Elkartea

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

1.Nola deitzen da zuen elkartea?
Sakanako Mila Kolore Elkartea.

2.Zergatik Mila Kolore?
Gure elkarteko gelan kolore asko daudelako eta guri koloreak asko gustatzen zaizkigulako.

3.Zer egiten duzue elkartean?
Denak: Gauza asko! Psikoballetean Irantzurekin dantzatzen dugu. Berak dantza erakusten digu eta gustatzen zaigu. Dantza ezberdinak, berari eta guri gustatzen zaizkigunak.
Josu: Ni rockeroa naiz. Gustatzen zaizkit kanta rockeroak, martxosoak…
Denak: Gero Maiterekin musikoterapia egiten dugu. Instrumentuak jotzen ditugu, Nairak pandereta, Josuk tronpeta… Baratza komunitarioan ere parte hartzen dugu eta han jasotzen duguna gero jan egiten dugu. Eta sukaldaritza tailerra ere egiten dugu.

4.Zenbat lagun egoten zarete?
Asko, Sakana guztikoak. Gu, Lizar, Ana Maria, Izaskun, Isaac, Rosa, Nora, Yousef, Alex, Oier, Maitane, Aitor, Carlos, Vanesa… Lagun asko! Oso ongi pasatzen dugu.

5.Noiz etortzen zarete elkartera?
Larunbatetan, hamabostean behin. Hilero bi edo hiru larunbatetan. Elkartean elkartzen gara baina herrira ere ateratzen gara. Altsasutik kanpo ere txangoak egin ditugu eta kanpoan ere lo egin dugu, Ollon, Goldaratzen… Altsasuko Udalak prestatzen duen Concilia programan ere parte hartzen dugu. Batukada ere egin genuen, Dantzalekuko igerilekuetara joan…

6.Zuek ez zarete bakarrik egoten. Laguntzaileak dituzue, zuekin egoten diren boluntarioak.
Bai, boluntarioki etortzen dira gurekin egotera, beraiek nahi dutelako. Eta gu oso kontentu gaude beraiekin.

7.Nortzuk dira boluntarioak?
Marta, Elvira, Ainara, Imanol, Cristina, Sergio, Amaia, Manuela, Juana "gure amona", Irantzu, Zuriñe, Begoña, Eider, Maialen, Rakel… Gehienak boluntarioak dira eta beste batzuk monitoreak, Conciliakoak. Altsasu, Bakaiku, Etxarri… herri askotakoak dira.

8.Zuek nahiko zenukete oraindik ere lagun gehiago etortzea?
Bai. Ongi pasatzen dugulako eta jende berria ezagutu nahi dugulako. Sakana osoari esaten diegu ea gurekin ongi pasatu nahi duten musikoterapia, psikoballeta, irteerak eta halakoak egiten. Honutza etor daitezela!

9.Non zaudete?
Altsasun, Intxostiapunta gazte guneko gela batean dago Mila Kolore Elkartea. Facebooka ere badugu (Asociacion MilaKolore Elkartea), e-posta (milakoloreelkartea@gmail.com) eta telefonoak (660 29 96 17, 606 508 138). Larunbatetan 17:00etatik 20:00etara biltzen gara hamabostean behin. Horretaz gain, urtean barna beste irteera batzuk egiten ditugu.

10.Boluntario egin nahi duenak zer egin behar du?
Atea zabalik egoten da, boluntario egin nahi duten guztiak etor daitezela! Ez dute formaziorik izan behar, boluntario izatearekin nahiko.

11.Jende berria etortzen bada ongietorri festa egingo diezue?
Bai! Merendola bat, edo dantzatu, edo loreak egingo ditugu… Nahi baduzue gurekin ongi pasatu etorri Mila Kolore elkartera!